



SKOLAE

BERDIN BIDEAN
CRECIENDO EN IGUALDAD

1. 2017–2021 HEZKIDETZA PLANA Nafarroako ikastetxe eta hezkuntza- komunitateentzat

Sarrera

1

■ Ugari dira Hezkuntza Departamentua, ikastetxeak eta, oro har, hezkuntza-komunitatea hezkidetzan oinarritutako eskola-eredu bat lortzeko modu aktiboan lan egitera premiatzen duten aholku eta betekizunak biltzen dituzten arau, plan eta bestelako elementu estrategikoak. (1)

Arauek aipatzen dituzten alderdien artean, hauek nabarmendu daitezke: curriculumaren edukia, material didaktikoak, egitura eta pertsonekin lotutako neurriak, hezkuntza-sistemaren langileak gaitzea, ikuskaritzaren lana, berdintasunaren arloko arduraduna ordezkaritza handieneko organoetan, eta genero-indarkeriaren aurka egitera zuzendutako neurri eta politikak.

Nafarroak orain dela hamar urte onetsi zuen hezkuntzarako lehen berdintasun-plana, baina ez zituen bete etorkizuneko asmoak, ezta maila formalenean ere. Murritzeta handiek Nafarroako ikastetxe askoren artean sortutako ekimen itxaropentsuak, irakasleen lanean, prestakuntzan eta trukean oinarritutakoak, itzali zituzten. *Coeducando, las ocho maletas coeducativas* bloga eta *Coeducando* trofeoa berdintasunerako bidean aurrera egiten jarraitzeko prest dagoen eskola-komunitate baten ahaleginaren (hori ere lankidetzan egin) lekuko dira oraindik. (2)

2.

■ *2017-2021 Hezkidetza Plana*, Nafarroako ikastetxe eta hezkuntza-komunitateentzat zuzendua, Hezkuntza Departamentuak Berdintasun Unitatearen bitartez bere gain hartutako konpromiso sektorialen zati da, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren proposamenez Nafarroako Gobernuak onetsitako urteroko Berdintasun Planaren esparruan.

Halaber, 2016an onetsitako *Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko hezkuntzako Plan Sektorialean* bere gain hartutako konpromisoak garatzen ditu.

3.

■ *2017-2021 Hezkidetza Plana* Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak koordinatutako **prozesu parte-hartzaile** batetik diseinatu eta garatu da hasierako fasean, Osasun Departamentuko Osasun Publikoaren Institutuaren, Nafarroako Eskola Kontseiluaren eta irakasleen inplikazioarekin eta berdintasunean zein hezkidetzan aditu direnen laguntza teknikoarekin.

Estreinako esperientzia pilotu honetan, **prozesu parte-hartzailearekin jarraitzea** aurreikusita dago; horretarako, Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin, toki-erakundeetako teknikariekin, eskola-kontseiluekin eta beste kontseilu batzuekin, guraso-elkarteekin, aisia-elkarteekin, eta hezkuntza-munduekin zuzen edo zeharka lotutako beste pertsona eta entitate batzuekin koordinatuko da programa.

Plana **ikasketa-ibilbide** batean ardazten da, eta helburuak eta jarraibide zehatzak proposatzen ditu hezkuntza-etapa guztietan zehar ikasgeletan aplikatzeko.

Horrelaxe jaio da SKOLAE *Berdin bidean Creciendo en igualdad* programa.



2. SKOLAE PROGRAMA

BERDIN BIDEAN
CRECIENDO EN IGUALDAD

Zer da?



2017-2021 Hezkidetza Plana Nafarroako ikastetxe eta hezkuntza-komunitateetan gauzatzen duen programa da SKOLAE.

Nork bere bizitza-proiektua aukeratzeko gaitasunak bereganatzen ikasteko prozesuan lagungarri izatea du helburu (**askatasunetik eta aukera-aniztasunetik, genero-baldintzatzaile gabe, arraza, erlijioa, maila ekonomiko eta kulturala, jatorria, eta abar edozein izanda ere**); **eskola-komunitate guztien eskura** jartzen da, haurrak jaiotzen direnetik hezkuntza-etapa guztiak amaitzen dituzten arte.



SKOLAEk, hezkidetzaz gain, ekintza-plan bat, prestakuntza-plan zabal bat eta toki-eragile askotarikoak koordinatzeko konpromisoa ere barnebiltzen ditu, ikasgeletatik harantz joan dadin, hots, familienganaino eta adin guztietako ikasleen ingurune hurbileraino.

SKOLAEk Nafarroako hezkuntza-sistemaren funtsezko pieza izan nahi du, integratua eta irakaskuntza-lanean ikusgai, aldaketa sendo eta iraunkorren berme.

Ibilbide osoa zeharkatzen duten hainbat kontzepturen inguruan egituratzen da **SKOLAE: emakumeen eta nesken aurkako indarkeriak prebenitzea; emakumeak eta beren ekarpenak ikusgai egitea; identitate-, kultura eta sexualitate-aniztasunarekiko errespetua; partaidetza soziala; eta berdintasuna gauzatzeko konpromiso partekatua.**

2017–2021 Ekintza-plana


Bi fase desberdinetan hedatuko da SKOLAE programa: **fase pilotua da lehen**a, 2017-2018 ikasturtean zehar unibertsitateaz kanpoko 16 ikastetxetan gauzatuko dena (3); ikastetxeek hezkuntza-etapa guztiak hartzen dituzte, hizkuntza-eredu desberdinetakoak dira eta Nafarroa osoan zehar banatuta daude.

Hauexek dira **ikastetxeek esperientzia pilotuan parte hartzeko bete beharreko baldintzak**:

- **Prestakuntza- eta aholkularitza-planean** (zati bat presentziala da, eta bestea, birtuala) parte hartzea ikasturte osoan zehar (4).
- Ikastetxeko **zuzendaritza-taldeak** konpromiso aktiboa espresuki agintzea.
- Hezkidetzarekiko konpromisoa ikastetxearen dokumentazioan sartzea.
- **Hezkidetzako-koordinatzaile bat** izendatzea.
- **Talde bultzatzaile bat** sortzea ikastetxean.
- **Klaustroko** irakasleen zati nabarmen batek parte hartzea prestakuntza-prozesuan eta programaren ebaluazioan.
- Jarraipenaren berri ematea **eskola-kontseiluari**.
- **Familiak inplikatzeko**, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzetan parte hartu beharko baitute.
- **Toki-ingurunearekin** koordinatzea.

Era berean, konpromiso hauek hartu ditu **Hezkuntza Departamentuak** lehen ikasturte pilotuan zehar:

- **Barne-taldea** koordinatzea (hauek osatuko dute taldea: Berdintasuna, Hezkuntzako Ikuskapena, Ikasketak Antolatzekoa eta Ebaluazioa).
- Ikastetxeei **jarraipena egitea eta laguntzea** prozesu osoan zehar.
- **Prestakuntza-eduki berriak eta orientabide-materialak** garatzea, eta ikasgeletan aplikatzea.
- Toki-entitateekin, beste departamentu batzuekin eta zuzendaritza nagusiekin koordinatzea, **hezkuntza-komunitateari** (batez ere, familiei eta gazteei) **zuzendutako proiektu partekatu eta koordinatuak** garatzeko aisiako eta denbora libreko espazioetan.
- Programaren **ebaluazioa** eta edukiak zein prozesuak egokitzea.
- **Jarraipen- eta ebaluazio-plana** diseinatzea.
- Orokortze-fasea **planifikatzea**.



*Esperientzia pilotua gauzatuta eta lehen urtea ebaluatuta, **edukiak, arauak, prozesuak eta baliabideak** egokitu eta garatu ahalko dira, programa, nahitaez eta mailaz maila, curriculumaren bidez hezkuntza-sistema osoan integratuko dela bermatze aldera.*

Ekintza-planak **bigarren fase bat (orokortze-fasea)** ere aurreikusten du, hurrengo hiru ikasturteetarako (2018-2019, 2019-2020 eta 2020-2021). Horren bidez, Nafarroako gainerako ikastetxeetara iritsiko da (150 ikastetxetara, gutxi gorabehera, urteko), guzti-guztiek izan dezaten prestakuntza, gaikuntza eta aholkularitza jasotzeko aukera.

2017-2021 Ekintza-planari fase guztietan jarraipena egin, eta ebaluatu egingo da. Hartara, nafar ikasleengan izandako **eragina egiaztatu**, berdintasunerako aldaketaren **joerak identifikatu** eta haiek sendotzeko beharrezko zuzenketak txertatu ahalko dira, epe ertainean.

Hezkidetza-ibilbidea

SKOLAEk, ibilbide anitz baten bidez, ikastetxe bakoitzean hezkidetza eta harekiko konpromisoa gauzatzeko zein kudeatzeko erreferentziako esparrua sortu du. **Ikaskuntza-edukiak eta -esperientziak, bai maila pertsonalean, bai talde-mailan,** ezartzen ditu **hezkuntza-prozesu osoan zehar; mailaz maila egiten du hori, eta jarraibideak ere ematen ditu.**

Haurrek bizitza-proiektu propioa aukeratu, eraiki eta bizitzea ahalbidetuko duten oinarrizko gaitasunak bereganatzeko balio du ibilbideak. Mailaz maila egingo dute, ezagutzatik, askatasunetik eta etorkizunari buruz genero-baldintzatzaile gabe erabakitzeko gaitasunetik, berdintasunik eza identifikatzen, haren aurka borrokatzen eta berdintasun-eskubidea gauzatzen (norberaren kultura, erlijio, gizarte-klase, egoera funtzional eta abarraren esparruan) ikasita.



3.

Hezkidetza Ibilbidea

Gaitasun globala:

Norberaren bizitza-proiektua aukeratzea, askatasunetik eta aukera-aniztasunetik, genero- baldintzatzailearik gabe, berdintasunik eza identifikatzen, haren aurka borrokatzen eta berdintasun-eskubidea gauzatzen (kultura, erlijio, gizarte-klase, egoera funtzional bakoitzaren esparruan) ikasiz.


Ibilbidea 4 ikasketaren inguruan egituratzen da, eta ikasleek 4 gaitasun garatu ditzaten diseinatu dira ikasketak:

IKASKETAK	GAITASUNAK
1. KRITIKA BERDINTASUNIK EZAREN AURKA ETA ALDAKETARAKO GAITASUNA	Identifikatu eta aztertzea generoaren arloan dagoen berdintasunik eza zein hari aurre egiteko eta eraldatzeko ardura gain hartzea.
2. AUTONOMIA, INDEPENDENTZIA PERTSONALA ETA ENPLEGUAREN ZENTRALITASUNA	Zainketaren eta enpleguaren lanak autonomia eta independentziarako oinarri gisa hartzea bizitza-proiektu igualitarioetan.
3. LIDERGOA, AHALDUNTZEA ETA PARTAIDETZA SOZIALA	Erabakiak hartzeko norberak duen gaitasuna aitortzea eta jokabide partekatua sustatzea, helburu komunak lortze aldera.
4. SEXUALITATEA, BIZIKIDETZA ETA INDARKERIAREN PREBENTZIOA	Errespetua eta berdintasunezko hazkunde pertsonala errazten dituzten harreman afektibo, sexual eta bizikidetzakoak adierazteko eta ezartzeko gaitasun pertsonala ezagutzea eta onartzea.

Mailaz maila landuko dira eskola-sistemaren unibertsitateaz kanpoko etapa guztietan zehar, hasiera-hasieratik.



Baina hezkuntza-etapak ez da izan ibilbidearen edukiak egituratzeko kontuan hartu den irizpide bakarra, hiru eremu hauen inguruan ere egituratu baitira: eremu pertsonala, harremanen eremua eta eremu soziala.



- **EREMU PERTSONALA:** Ikasle bakoitzaren identitatea eraikitzeari buruzko edukiak, bere bizitza-proiektuari lotutako erabakiei buruzkoak eta nork bere burua (gorputza, gaitasunak eta mugak, desioak eta emozioak...) ezagutzeko prozesuari buruzkoak.
- **HARREMANEN EREMUA:** Beste pertsonekin harremanak izateko moduei buruzko edukiak zein pertsona guztiek edozein interakzio-eremutan dituzten eskubide eta betebeharrak buruzkoak.
- **EREMU SOZIALA:** Bai gure ingurune lokalean, bai gure gizarte globalean dagoen egoerari buruzko edukiak zein eskaintzen zaizkigun eredu eta erreferenteei buruzkoak.

IKASKETA_1

Kritika berdintasunik
ezaren aurka eta
aldaketarako gaitasuna



zergatik?

1.

Gizartearen zati batek berdintasuna lortu delako irudipena du (*berdintasunaren irudikeria*), baina ikastetxeak erreferente ezinbestekoak dira (baina ez nahikoak) **antzemateko hainbat desberdintasun sexistak jarraitzen dutela oraindik, horren arrazoiak, mota berriak agertzen direla eta, hala ere, aurrera egin dugula gutxi-asko berdintasunaren arloan**. Berez, hezkideza-espazioak izan beharko lukete, sexismorik gabeak.

Hezkidetza-praktikak **nola errealitateari buruzko diagnosi kritikoa egiteko gaitasuna, behar bezala oinarritutako genero-ikuspuntu batetik, hala identitate igualitario berriak, maskulinoak zein femeninoak, eraikitzean gure inplikazioa diseinatzeko gaitasuna** eman behar digu; izan ere, identitate berri horiek berdintasunean oinarritutako elkarbizitza exijitzen dute, eta berdintasuna errealitate¹ eta ez aldarrikapen duen gizarte baten eraikuntzan inplikatzeko dira.

Gizartearen gaurko egiturak herritartasun osoa ukatzen die emakumeei, eta oraindik ere identifikatzen dira sozializazio diferentzialeko jokabideak, desira-objektu, zerbitzu-objektu gisa konfiguratzeko dituztenak emakumeak. Hartara, indarrean dago oraindik emakumeek *beste pertsonen bizi-kalitatea eman behar* dietelako mandatuak, eta horrek zera dakar: hurbileko pertsonak zaintzeko ardura neurritz gain hartzea, batetik, eta, bestetik, bizitza-proiektua mugatzea, hau da, aisialdiaz eta oparotasunaz gutxiago gozatzea, lan-mundura osorik sartzeko aukerak murriztea eta gizartean presentzia urriagoa izatea. Gizon gehienek, aldiz, apenas egin dute berdintasunarekiko benetako konpromiso baten alde.

¹CEDAW konbentzioaren arabera, kide diren estatuek, emakume eta gizonen arteko berdintasun formala izateko legeko oinarriak ezartzeaz gain, **emaitza-berdintasuna edo de facto berdintasuna (berdintasun substantibo** esaten zaio) izatea ziurtatu behar dute. Berdintasun substantiboa izango bada, pertsonen eskubideak osorik gauzatzea eragozten duten baldintzak aldatu behar dira, baita garapen-aukerak eskura jarri ere (egiturazko neurrien, legeko neurrien eta politika publikoko neurrien bidez).

Gizon askok, oraindik ere, beren *ego profesionalean*, beren garapen pertsonalean (oinordetutako pribilegioetan oinarritua) ardazten dute bizitza-proiektua, beren gain hartu gabe zainketa-lanen ardura eta aintzat hartu gabe hezkidetza-ekintzarako hain beharrezkoa den ardurakidetasunaren eredu izan behar dutela. Gizon batzuek, aldiz, hegemonikoak izaten jarraitzeko genero-presioaren bizipena jasaten dute; krisi- eta frustrazio-iturri izan ohi da hori hainbat gizonentzat, eta beharrezkoa da, halako egoeretan, maskulinitate hegemonikoaren eta horren mandatuen dekonstrukzioa.

Muturreko kasuetan, genero-indarkeriak erabiltzen dituzte gizon batzuek emakumeei berdintasunerako sarbidea mugatzeko; kontrolean eta emakumeekiko gehiagotasun-egoeran oinarritutako maskulinitateari eustea eta pribilegioen galera saihestea dute helburu.

2. Askotarikoak dira fenomeno sozialen kausak, baita, jakina, generoaren arloko berdintasunik ezarenak ere, eta horri buruz hausnartu beharra dago. Angela Davisek, adibidez, interseksionalitatea kontzeptua ekarri du “arraza-, genero- eta klase-kategoriak lotutako, elkarri lotutako eta gurutzatutako elementu gisa ulertzeko”. Berdintasunik eza sortu eta hedatzen duten kategoriak ezagutarazi beharra dago: arraza, generoa, klasea, etnia edo kultura.

Funtsezkoa da, beraz, **gizarte sexista batetik jasotako eragina zalantzan jarriko duten azterketa-gakoak ezartzea, gutxika**. Gizon-emakumeek eskubide ekonomiko, sozial eta politikoak osorik gauzatzeko aldarrikapen erradikalak berdintasunaren balioa azpimarratuko du justiziaren printzipio etikoaren barruan. Bizitza seguru eta osoa izateko eskubideak beharrezkoa egiten du genero-indarkerien sintomak ahalik eta goizen antzemateko gaitasuna, baita indarkeriak gaitzesteko eta haiei aurre egiteko artikulazioa ere.

Azterketa-gako horiei esker, emakumeek gizarteari egindako ekarpenei entzungor (ikusgor) egin ohi zaiela jakingo dugu, gutxika, eta ikusezintasun hori iraunarazten duten elementu sexistak (hizkera, mass media, kultura-kontsumoak...) identifikatu.

Horren aurrean, aro bakoitzak emakumeei ezarritako mugak hautsi zituztenen adibide motibatzailea baliatu behar da: emakumeentzat ia debekatuak ziren eremuetan aitortza jasotako itzaltsuak; gaur normaltzat jotzen ditugun ekintzak egiten hasi ziren aitzindariak; beren adore eta ideiegatik jazarritakoak... Berdintasunarekin konprometitutako gizonak ere sartu behar dira, aitortza urria egin baitie historiak.

Heziketa-ekintzaren inguruneak gora doan kultura-aniztasuna du ezaugarri. Hezkidetza-ekintzak **sexua-generoa sistemaren aldaera kultural desberdinen gaineko kontzientzia** hartzeko espazioa izan behar du. Beharrezkoa da bizi garen gizartean dituen inplikazioak ezagutu eta batera aztertzea.

3.

Hezkidetza lantzen duen eskolak **mugimendu feministek eta berdintasun-politikek gure ingurunean berdintasunaren alorrean lortutakoa identifikatu eta baloratzeko gaitasuna** eman behar du; horrez gain, lorpen berriak proposatzeko gai izan behar du. Mundu igualitarioago baten aldeko hezkidetza-konpromisotik, **identitate igualitarioak sustatu behar dira, anitzak** baina konprometituak bai eremu publikoan, bai eremu pribatuan berdintasunerako eskubidea gauzatzearekin. Halaber, elkarbizitza-harremanen imaginario berria aurkeztu behar da (ekitatean oinarritutako harreman jatorrak izan behar dute), baita gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna erraztuko duten gizarte-antolakuntzako jokabideak ere. Eskolak berdintasunaren aldeko osagarri zehatzak identifikatzeko gai izan behar du, identitate igualitaria lortzea xede duen aldaketarekin konpromiso pertsonala barne hartu behar dutenak. Halaber, berdintasunaren alde herritarrek zein elkarteek ingurune sozialean bultzatutako mugimendua (bai soilik gizonek ala emakumeek eratua, bai gizon-emakumeek eratua) ikusarazi behar da.

Horregatik guztiagatik, eskola-inguruneak jakin behar du ondokoa bermatu dezaketen espazio urrietako bat dela: ikasleak inplikatu direla gizon-emakumeek herritartasun osoa gauzatzeko erronkan jotuko duten paperaren azterketan, hots, nola parte hartuko duten (maila pertsonalean, interpertsonalean eta kolektiboan) zeregin horretan. Are gehiago, ikasketa aktiboko espazioa izan behar du eskolak, sormena etengabe sustatzeko espazioa, ezinbesteko ekarpena baita sormena **sozializazio diferentzialaren presio sexistak ez bezalako erantzunak sortu ahal izateko eta norberaren identitate pertsonala konfiguratzeko**.

Bereziki garrantzitsua da lortzea ikasleek ikus dezatela gizartearen arazo bat dela berdintasunik eza, eta ez emakumeen arazo bat, ezta arazo indibidual huts bat ere. Hezkidetza-ekintzaren eragile gisa integratu behar dira mutilak, beren maskulinitatea zalantzan jar dezaten, maskulinitatearen eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko loturak gaitzetsi ditzaten eta igualitarioak diren beste maskulinitate mota batzuk (aitatasun zaintzaileak, ardurak banatzearen aldeko bikotekideak, gizon igualitarioak eta tratatu onen eragileak, berdintasun-proiektuarekin konplize direnak...) ezagutu ditzaten; izan ere, maskulinitate mota horiek konprometitu eta eroso sentitzen dira emakume ahaldunekin, hau da, gizonak bezain askeak diren emakumeekin izaten diren elkarbizitza-ereduetan. Ikerketa metodologikoa bultzatu behar da, helburu bikoitz honekin: ikasle guztiek (eta ez soilik aurrez berdintasunarekiko sentikorrek zirenek) zalantzan jartzea maskulinitate hegemonikoaren printzipioa, bata, eta, bestea, gozatzen dituzten pribilegioen gaineko kritika egitea.



genero-gakoak

- **BERDINTASUNAREN IRUDIKERIA**

Amelia Valcárcelek garatutako kontzeptua da berdintasunaren irudikeriarena, eta **irudipen faltsu honetan datza: gizonak zein emakumeak berdinak dira jada eskubideei dagokienez.**

Egilearen² arabera, *“berdintasunaren irudikeria egoera politiko globala da, non emakumeek eta gizonek (hau da, gizarte-multzoa osatzen duten gehienek) uste baitute egia dela sexuak berdinak direla, baina ez, berez, berdin-berdinak direlako (ez baitira berdinak), baizik eta betekizun eta aukera berdinak dituztelako; frogatutzat ematen dute hori. Egungo egoera, beraz, bidezkoa da, eta ez dute zertan aldatu edo aurreratu, haien ustez, egoera hori nolabaiteko argialdi arrazionalista baten ondorioa baita (jendea ez zelako nahikoa ilustratua ez dira orain arte berdinak izan sexuak; gaur egun, ordea, nola gertatu den jakin ez dakigula, den-denok dakigu sexuak berdinak direla); horren emaitza espazio eta botereen egungo banaketa da. Eta dugun horri “berdintasuna” deitzen zaio”.*

Ikasketak, beraz, berdintasunaren irudikeria hori eraitsi nahi du, hain zuzen, egungo desberdintasun-egoerak iraunarazten baititu, eta ikasleak, irakasleak eta familiak desmobilizatu.

²Hitzaldia Nafarroako Unibertsitate Publikoan (2011). Genero-indarkeriaren kasuak eta hura desagerrarazteko gakoak.

- **GENEROAREN ERAIKUNTZA SOZIALA**

Genero-sozializazioaren bidez, haurrek zer jokabide (sexu bakoitzarentzat egokitzen direnak, zehazki), besteak beste, berenganatu behar dituzten irakasten diete gizarteek hurrei.

Sozializazio-prozesuan zehar, imajinario soziala sortu, eta pertsona bakoitzaren genero-identitatea osatzen da. Prozesu horrek berdintasunik eza sortu, sustatu eta hedatzen du garapen-aukeretan eta bizi-kalitatean, boterearen erabilpena eta emakumeen gaineko menderatzea betikotuta.

Familiarekin bat, eskola da eragile sozializatzaileetako bat, lehen mailakoa, bai esplizituki lantzen diren edukiengatik (ageriko curriculum), bai inplizituki lantzen direnengatik (ezkutuko curriculum); generoaren arloko berdintasunik eza eraiki, gauzatu eta sendotzen dute biek ala biek. Eskolan aurkitzen dituzte haurrek pare-taldeak, eta ingurune desberdinetan aritzen dira interakzioan haiekin, eta gizarteak iradokitako genero-mandatuak gauzatu, sendotu edo zalantzan jarri. Inoiz baino gehiago komunikabideen ahalmenean, kultura-kontsumoan eta ideologia-hegemonietan antzemango dugu zergatik aukeratzen dituzten neska-mutilek aukeratzen dituzten “idoloak”.

- **AZTERKETA GENERO–IKUSPUNTU BATETIK**


Ikasketaren helburu nagusietako bat hainbat esparrutan (familia, eskola, gizartea, lan-mundua...) ematen den berdintasunik ezaren inguruko pentsamolde kritikoa sustatzea da ikasleen artean. Horretarako, genero-teoriaren funtsezko kontzeptuak jorratu behar dira: sexua-generoa sistema, genero-sozializazioa, genero-rolak eta -estereotipoak, genero-mandatuak, genero-identitatea, interseksionalitatea, berdintasuna-desberdintasuna-berdintasunik eza-diskriminazioa, lanaren sexu-banaketa, kontziliazioa-ardurakidetasuna-jasangarritasuna, sinkretismoa...

Kontzeptu horiek ezagututa, genero-ikuspuntutik irakurri ahalko dituzte ikasleek egoerak.

- IKUSGAITASUNA ETA ERREFERENTZIAKO EMAKUMEAK,
ANDROZENTRISMOAREN AURKA

Munduari “begiratzeko” eta interpretatzeko modu bat da androzentrismoa: gizona gauza guztien erdigunea eta neurria da. Errealitatearen ikuspuntu ez-oso bat da, balio maskulino menderatzaileen arabera neurtzen eta baloratzen baitira kultura, lana, gizonak berak, baita emakumeak ere; balio horiek dira funtsezkoak eta nagusiak. Diziplina guztietan gauzatu da ikuspuntu hori, sistematikoki gauzatu ere, eta, ondorioz, ikusezin eta baliogabe bilakatu da emakumea, sumisioa barneratuta, bizitzaren eremu guztietan.

Ukaezina da egungo erreferentziako irudiek eta ereduek pisu handia dutela ikaslearen bizitza-proiektuaren eraikuntzan, eta, horregatik, genealogia feminista egin beharra dago, eta emakumeen ezkutuko historia, baita ezkutatutakoa ere, erakutsi. Idazleak, emaginak, eskultoreak, margolariak, latsariak... horiek guztiak aitortzea eta egindako ekarpena ezagutaraztea da helburua. Funtsezkoa da, baita ere, berdintasunaren alde emakumeek egindako borroka, sufragismoaren historia eta feminismoaren hastapenak ezagutzea, baita borroka horretan nabarmendutako emakumeak eta beren ekarpenak ere; ildo horretatik, androzentrismoaren aurkako jarrera kritikoa erakutsi dutenak nabarmenduko genituzke, eta gaitzetsi androzentrismoaren aldeko jarrera erakutsi dutenak, historian zehar eta gaur egun ere erreferentziakoak izan badira ere.



Gaitasuna:

*Identifikatu eta aztertzea
generoaren arloan dagoen
berdintasunik eza zein hari
aurre egiteko eta eraldatzeko
ardura gain hartzea*

Helburuak

EREMU PERTSONALA	✓ Sustatzea berdintasunik ezaren inguruko pentsamolde kritikoa ikasleengan, generoari dagokionez, azterketa-gakoak ekarrita hainbat egoeraren kausak identifikatze aldera. ✓ Erraztea bizitza-proiektu propioaren garapena mugatzen duten genero-mandatuak identifikatu ditzatela ikasleek. ✓ Nor bere aldaketa pertsonalaren egilea izan delako eta identitate igualitario propioa (feminitate eta maskulinitate hegemoniko diskriminatzaileez harago) garatu dezakeelako kontzientzia hartzea.
HARREMANEN EREMUA	✓ Identifikatzea jasotako zainketak emateko egin beharreko lanak, baita pertsona bakoitzak haietan jokatu dezakeen papera ere. ✓ Bultzatzea ardurakidetasuna harremanetan (elkarrekiko zainketetan eta autonomian oinarritu beharko lukete harremanok). ✓ Aztertzea genero-lerrabideak ikasleen arteko harremanetan (neska-mutilen artean, nesken artean eta mutilen artean), indarkeriarik gabeko harreman igualitarioak sustatuta.
EREMU SOZIALA	✓ Ikusarazi eta aitortzea emakumeek emandako zainketen balioa zein hainbat alorretan (zientzia, kirola, asmakizunak, literatura...) aritutako emakumeak ezagutaraztea, baita emakume borrokalariak eta berdintasunarekin konprometituak ere. ✓ Ezagutzea feminismoaren eta mugimendu sufragistaren historia, gaur egungo mugimendu feministak, eta beren eragina berdintasun-politiken sustapenean. Aintzat hartzea genero-rol eta -estereotipoak hausten dituzten gizon-emakumeak. ✓ Emakumeen aurkako diskriminazio- edo indarkeria-kasuen aurrean pertsona aktiboak izatearen garrantziaz kontzientzia hartzea.

irakurketa-gakoak

Banaketa bikoitzaz gain (HEZKUNTZA – ETAPA + EREMUA), beste banaketa-mota ere ezarri da ikasketako ibilbidearen edukietarako: irakurketa-gakoak; 5 proposatu dira, haren garapenaren buru izan diren adituak eta irakasle-taldeak identifikatuta.

- **BERDINTASUNAREN BALIOA.** Partekatutako ardura eta erantzukizunen aitortza, baita lanen balio berdinarena ere. Aukera onenak baloratzeko gaitasuna bere bizitza-proiektua hautatzeko askatasunik.
- **AZTERKETA- GAKOAK.** Generoen eraikuntza sozialaren gaineko kontzientzia. Berdintasunik ezaren identifikazio eta desnaturalizazioa. Lerrabideak identifikatzea, harremanetan izaten diren genero-lerrabideak, besteak beste.
- **EMAKUMEAK IKUSGAI EGITEA.** Lan guztien balioa nabarmentzea, ekarpen guztien aitortza. Heterodoxiaren balioa, ezarrita dagoena urratzeko gaitasunaren balioa.
- **ALDAKETARAKO GAITASUNA.** Lehentasunen identifikazioa berdintasunerako aldaketan. Huts egiteko eskubidea, eta autoeraikitze ere. Berdintasunaren aldeko baliabide, erreferentzia eta ezagutza-eredu alternatiboen garapena sustatzea. Tratu onak exijitzeko eta emateko gaitasuna.
- **IDENTITATE BERRIAK.** Identitate, rol eta egitura sozialen identifikazio eta aldarrikapena, bai familietan oinarritutakoena, bai beste harreman-mota batzuetan oinarritutakoena. Hurbiltze kritikoa errealitate konplexu berrietara.

IBILBIDEA

0-6 HAUR HEZKUNTZA

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
1. Aldaketarako gaitasuna: Autonomiaren hastapena autozaintetan. Autonomia pertsonala balio gisa; ni, ni ere.	1. Berdintasunaren balioa: jasotako zainketetarako beharrezkoak diren zeregin guztiak ikusgai egitea. Desberdinak gara, baina ez balio desberdinekoak Gizon-emakumeek pertsona gisa hazteko duten gaitasunen berdintasuna.	1. Emakumeak ikusgai egitea: Tradizioak emakumeen eskuetan utzitako zainketa-lan (ikusezin) guztien balioa nabarmentzea. "Zainketakoak" ez diren roletan aritutako emakumeak ezagutaraztea.
	2. Azterketa-gakoak: Elementu sexisten identifikazioa ohiko hizkeran. Neskatoen aurka mutikoek erabili ohi duten indarkeriaren desnaturalizazioa (erasoaren bizipen sexista)	2. Identitate berriak: Familia zaintzaileen aniztasuna: aita zaintzaileak ikusaraztea. Gizonezko profesionalen ugaritzea
	3. Aldaketarako gaitasuna: Autonomiaren hastapena beste pertsonen edo haurtxoen zaintetan. Jolasak eta espazioak partekatzea.	3. Azterketa-gakoak: Lanen banaketa sozialaren identifikazioa: mугen deslegitimazioa. Praktika sexisten identifikazioa jolas eta espazioetan.

G K
A R
I I
T T
A I
S K
U O
N A

O
-
6
H
H
A
U
R

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
1. Aldaketarako gaitasuna: Aldaketa pertsonala. Autoeraikitze eskubidea, huts egiteko eskubidea, berreraikitze eskubidea, beharrezkoa den moduan eta unean. 2. Azterketa-gakoak: Ikasleen eskola-ingurunean eta sozialean identifikatutako elementu sexistak salatze gaitasuna.	1. Aldaketarako gaitasuna: Aldaketa interpertsonala. Tratu onen autoexijentzia pertsonen arteko harremanetan (I): errespetua eta autonomia. 2. Azterketa-gakoak: Genero-lerrabideen azterketa neska-mutikoen arteko, mutikoen arteko eta neskatoen arteko harremanetan.	1. Emakumeak ikusgai egitea: Lan-eremuan, lanbide mota guztietan, parte hartzeko eskubidea gauzatutako emakumeak ezagutaraztea. Emakume zaintzaileen ikusezin bilakarazitako ekarpenaren (gaur egun zein historian zehar) balioa nabarmentzea. 2. Azterketa-gakoak: Generoen eraikuntza sozialaren gaineko kontzientzia: generoa-sexua sistema, patriarkatua, sozializazio diferentziala, genero-estereotipo eta -mandatuak. Genero-arrazoiak direla-eta egun dagoen berdintasunik ezaren gaineko kontzientzia: hurbileko panorama eta mundu mailako ikuspegia. Genero-indarkeria(k) berdintasunerako aldaketa etenarazteko estrategia gisa. Hezkidetzeta eta bere mugak: sexismoa ikasmaterialetan eta asimetria espazio-banaketan. Sexismoa eragin mediatikoetan (I): ipuinak eta publizitatea. Hizkera-lerrabideak emakumeak ikusezin egiteko. 3. Identitate berriak: Berdintasunarekin konprometituta dauden gizonak ezagutaraztea. 4. Aldaketarako gaitasuna: Aldaketa soziala. Lehentasunen identifikazioa berdintasunerako aldaketa sozialean. Mugimendu feminista (I): kontzeptua eta lorpen nagusiak. Berdintasunerako aldaketan inplikaturako gizonak ezagutaraztea. Aktibismoaren aitortza. Hizkera inklusiboaren erabilera.

IBILBIDEA

12-16 DBH/ OLH

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
1. Aldaketarako gaitasuna: Aldaketa pertsonala. Konpromiso pertsonala identitate igualitario baterako aldaketan: elementu igualitario zehatzen identifikazioa. 2. Azterketa-gakoak: Alde batera uzten zailenak diren estereotipoak.	1. Berdintasunaren balioa: Ardura- eta erantzukizun-berdintasuna aukera-berdintasunaren berme gisa. 2. Aldaketarako gaitasuna: Aldaketa interpertsonala. Tratu onen autoexijentzia pertsonen arteko harremanetan (II): independentzia afektiboa, ahalduntzea eta matxismoa. Maskulinitate hegemonikoaren dekonstrukzioa, baita horrek ekarri ohi dituen pribilegioekiko kritika ere. 3. Azterketa-gakoak: Berdintasunerako aldaketaren aldeko prozesuetan abiatutako nerabeekiko/gazteekiko ohiko kritika eta eztabaidatzea.	1. Emakumeak ikusgai egitea: Betoa jarritako eremu publikoetan nabarmendutako emakumeak ezagutaraztea (I): kritikoak izateagatik eta jarrera askatzaileak defendatzeagatik topatutako traben azterketa. Emakume heterodoxoek historian zehar jasotako zigorra. 2. Azterketa-gakoak: Emakumeen aurkako indarkeriak: motak, mitoak eta genero-indarkeriaren zikloa. Sexismo eragin mediatikoetan (II): bideojokoak, telesailak, abestiak eta moda. Gorputzaren eraikuntza mediatikoaren eragina desira-objektu gisa. Hizkera inklusibo eta ez-sexistarako proposamenak. 3. Identitate berriak: Genero-mandatuekiko gizon-emakume heterodoxoak ezagutaraztea eta haiei buruz eztabaidatzea. 4. Aldaketarako gaitasuna: Aldaketa soziala. Mugimendu feminista (II): lorpen nagusiak eta lortu gabeko aldarrikapenak. Berdintasunerako aldaketan inplikaturako gizonak: elkarreak. Aktibismoaren aitortza. Ekintza positiboko neurrien balioa nabarmentzea.

G
A
I
T
A
S
U
N
A

1
2
-
1
6

D
B
H

IKASKETA_2.

Autonomia,
independentzia
pertsonala eta
enpleguaren
zentratasuna



zergatik?

1.

Azken garaiotan izan diren aurrerapenak gorabehera, **genero-estereotipoek zehazten dituzte oraindik ere ikasleen hautaketa pertsonalak eta profesionalak**. Bide akademikoak, jarduera eta lanbideak aukeratzeari buruzko inkestetan... oraindik ere lanaren, denboren eta eremuen sexu-banaketa garbi bat agertzen da.

Hezkuntza-sisteman ere argi eta garbi agertzen da aukeratze desberdin hori: mutilek prestakuntza zientifiko-teknikoak aukeratzen dituzte gehienbat, eta, neskek gizarte-zientziei eta giza zientziei lotutakoak hautatzen dituzte nagusiki. Gizonei dagozkien gure hezkuntza-sisteman, baita ere, errepikapen- zein gaitasun-mailak, eskola goiz uztea, akreditazio-maila apala bigarren mailako ikasketetan edo aniztasuna, maskulinitate hegemonikoaren gauzatzeren ondorioz, besteak beste.

Lan-merkaturako sarbidean ere izaten da berdintasunik eza: gizonak gehiago dira jarduera industrial eta teknikoaren sektoreetan, zeinak ongi baloratuak eta ordainduak izaten baitira; emakumeak, berriz, lanbide feminizatuetan aritzen dira, batez ere zerbitzuen sektorean, non lan-baldintza okerragoak izaten dituzten.

2.

Gure gizartean, **enplegua ezinbestekoa da bizitzeko, guztiz beharrezkoa pertsonen autonomiarako eta bizitzarako**. Enplegurik gabe ez dago autonomia ekonomikorik, eta autonomia ekonomikoa ezinbestekoa da autonomia pertsonalerako.

Seme-alabak eta mendekotasuna duten adindunak zaintzeko egiten diren lan-uzte partzialei (lanaldi-murrizketak) zein enplegu-uzte osoari (eszedentziak edo lana uztea) buruzko datuak aztertuz gero, agerikoa da **nolako zentraltasun desberdina hartzen duen enpleguak emakumeen eta gizonen bizitza-proiektuan**.



zergatik?

3.

Ikusleek antzematen duten helduen errealitate sozialak **aitorpen handiagoa ematen die produkzio-munduaren balioei**, esperientziei... eta, aitzitik, zainketa-lanek zein asebetetze pertsonala xede ez duten jarduerak gero eta balio txikiagoa dute. Zainketa-lanak zama baten antzera antzematen dira, denbora eta aisialdia kentzen baitituzte, baita enplegua lortzeko aukerak murriztu ere.

Mugimendu feministek, berdintasun-politikek eta hezkidetzak **zainketa-lanak aldarrikatzen dituzte, estu-estu lotuta baitaude pertsonen bizi-kalitatearekin eta ongizatearekin**. Ez badago zainketa-lanetarako hezkuntzarik, ez eta elkartasunezko praktika sozialerako hezkuntzarik ere, ezin da egon berdintasunerako hezkuntzarik; izan ere, hark pertsona guztien autonomiari eta garapen integralari egiten die mesede. Nork bere buruari egindako zainketa-lanek eta beste pertsona batzuei egindako zaintzek, hala nola harremanak eta eremuak zaintzeak, gure autonomia eta bizitzarekiko dugun ardura erakusten dute.

Testuinguru honetan, ikasketak honako hau bilatzen du: **eskolak ikasleen autonomia eta independentzia sendotzea, bizitza-proiektu autonomo eta solidarioa izan dezaten eta haien egungo eta geroko beharrez arduratzeko gauza izan daitezen, hala arlo publikoan nola pribatuan.**



- **LANAREN SEXU-BANAKETA**

Berdintasunik eza espazio, denbora, lan eta eginkizunen banaketan, sexuaren arabera egiten baita; banaketa horrek emakume asko ugalketa-esparruan kokatzen jarraitzen du, gainerakoen zainketa-lanetan eta arretan aritu daitezen; gizon asko, berriz, merkaturako ondasunak ekoiztera bideratzen ditu. Banaketa horren ondorioz, besteak beste, emakume asko jardunaldi bikoitzak eta hirukoitzak jasaten ari dira, eta, modu berean, emakume bakar baten ardurapean egoten dira seme-alaba txikiak edo mendekotasuna duen seme-alaba nagusiagoren bat dituzten familia gehienak, haietan heldu bakar bat dagoen kasuetan.

Gainera, emakumeak lan ordainduan hasten direnean, **jarduera eta sektore jakin batzuetan kontzentratzen dira (segregazio horizontala) eta zenbait postu eta kategoriatan (segregazio bertikala)**, normalean gutxien ordaintzen direnetan. Eta egoera horrek honako ondorio hauek ekartzen dizkie emakume askori: baliabide propioen falta, babesgabetasun soziala, ez egotea erabakiak hartzeko postuetan, lan osoaren gainkarga, aisialdi gutxi izatea... eta, halaber, haien osasunean eta bizi-kalitatean eragiten du.

Banaketa hori aldatu egiten da gizartearen eta garai historikoen arabera, baina ezagutzen diren gizarte guztietan gertatzen dira. “Jardueren” banaketa are garrantzitsuagoa da zeren eta sistematikoki **balorazio diferentzial bat** ekartzen baitu berekin, hau da, balorazio **hierarkizatu** bat, eta, bestalde, ondorio handiak eta garbiak izaten baititu bizi-baldintzetan.

Banaketa hori naturalizatu egiten da, hots, antzeman eta teorizatzen da arrazoi biologiko eta psikologiko bereizgarrien ondorioa balitz bezala.

- **BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA. ZAINKETA-LANAK IKUSGAI EGITEA**


Zainketa-lanak ez dira ez asegarriak, ez nahikoak, prekarioak dira, eta, gainera, batez ere emakumeek hartzen dituzte beren gain. Hamarkadak dira mugimendu feminista hori salatzen hasi zela, baina gizarteak ez zuen erantzunik eman; orain, ordea, zainketa-lanen egungo krisia ikusita, beharrezkoa da gizartea berrantolatzea.

Proposamen feminista³, baita hezkidetzarena ere, hau da: **bizitza eta haren zainketa kokatzea gizarte-antolaketaren ereduaren erdi-erdian**. Ulertzen denez, ez da posiblea emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala bilatzea eredu sozio-ekonomiko batean, baldin eta eredu hori, hain zuzen, gizarte- eta genero-arloko berdintasunik ezaren sorrerari eta errepikapenari esker sostengatzen bada.

Zainketa-lanak ikuspegi zabal batetik ulertu behar dira, mendekotasunaren arlora murriztu gabe. **Pertsona guztiek behar dituzte zainketa-lanak bizitzaren une guztietan, nahiz eta horiek izaera eta intentsitate desberdinekoak izan**. Continuum bat dago autonomiaren eta mendekotasunaren egoeren artean, zeinean pertsonak beren buruan zaintzeko gaitasun handiagoa edo txikiagoa baitute, baita elkarri zaintzeko harremanak ezartzekoa ere. Zainketa-lanak honela pentsatu behar dira: bizitzaren zaurgarritasuna eta haren muin komuna aitortzen duten jarduerak, eta, hortik abiatuta, pertsonen autonomoak izateko aukera ematen dietenak.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da behar diren zainketa-lan guztiak ikusgai egitea ikasgelan, baita haiek ematen dituzten pertsonak ere; sakon aztertu beharko dira zainketaren inguruan ezartzen diren arrazoi eta harremanak, baita modu kolektiboan arduratzeko aukerez hausnarketan aurrera egin ere.

³Amaia Pérez Orozco **ekonomia feministaren** erreferenteetako bat da; hark honako hiru elementu hauen bitartez definitzen du kontzeptu hori: alde batetik, merkatuak mugitzea analisiaren eta esku-hartze politikoaren ardatza izan ez daitezen, hau da, arreta-zentroa ez izatea moneta-fluxuak eta truke-balioaren sorrera, baizik eta bizitzaren iraunkortasun-prozesuak. Horrek berekin dakar argitara ateratzea bizitzari eusten ari zaizkion lanak, normalean ikusezinak direnak; izan ere, sistema kapitalista heteropatriarkalean ezkutaturik egoten dira, eta, historikoki, emakumeei eta feminitateari lotuta daude. Bigarren elementua hau da: generoa kokatzea funtsezko aldagai gisa, zeina sistema sozioekonomikoa zeharkatzen baitu; alegia, ez da elementu gehigarri bat, baizik eta genero- eta desberdintasun-harremanak sistemaren egiturazko ardatza direla, hots, kapitalismoa kapitalismo heteropatriarkal bat da. Hirugarren elementua da ez sinestea objektibotasuna neutraltasun baloratiboa dela: sinestea munduaren gaineko ezagutza oro jarrera politiko jakin bati dagoela lotuta. Hartara, komeni da zehaztea zein den zure jarrera hori eta ezagutza sortzea asmo argi batez: sistema eraldatzea.



Gaitasuna:

*Zainketaren eta enpleguaren
lanak autonomia eta
independentziarako oinarri
gisa hartzea bizitza-
proiektu igualitario batean.*

HELBURUAK

EREMU PERTSONALA	✓ Mota guztietako zainketa-lanak egitea eta haiek baloratzen ikastea, bai nork bere burua zaintzekoak, bai gainerako pertsonak zaintzekoak, ahaztu gabe zainketaren dimentsio soziala zein konponbidea dimentsio horretan datzala. ✓ Aitortzea zer garrantzitsua den zainketa-lanak eta enplegua orekatzea bizitza-proiektu igualitario bat garatze aldera. ✓ Ikasleei genero-soslairik gabeko orientabide akademiko-profesionala eskaintzea hezkuntza-ibilbide guztian zehar.
HARREMANEN EREMUA	✓ Jasotako zainketa-lanen balioa aitortzea, baita haiek eman dizkiguten pertsonena ere. ✓ Ardurakidetasunaren kultura bat erraztea harremanetan, denborak eta lanak bidezko moduan banatuta. ✓ Ikasleen artean lanak eta rolak banatzea, genero-soslairik gabe, lantaldetan ari daitezen.
EREMU SOZIALA	✓ Gaur egungo eredu ekonomikoari buruzko hausnarketa sustatzea, aintzat hartuta pertsona guztien behar eta zainketen asebetetzearekin duen lotura estua. ✓ Berdintasunaren aldeko jokabideak erakusten dituzten gizon-emakumeen erreferenteak ematea ikasleei. ✓ Generoaren arloko berdintasunik eza aztertzea zainketa-lanetan eta lan-eremuan, eta ikasleek generoaren gainean dituzten ezagutzak handitzea (lanaren sexu-banaketa, soldata-arrakala, segregazio horizontala zein bertikala, sexu-jazarpena eta jazarpena sexu-arrazoiengatik...)

irakurketa-gakoak

Banaketa bikoitzaz gain, HEZKUNTZA – ETAPA + EREMUA, beste banaketa-mota bat ere ezarri da ikasketako ibilbidearen edukietarako: irakurketa-gakoak; 4 proposatu dira, haren garapenaren buru izan diren adituak eta irakasle-taldeak identifikatuta:

- **ZAINKETAREN ETIKAK:** zer zainketa behar ditugun pertsonok, nork egin izan dituen historikoki, nork behar dituen zainketa gehien, nola ikas dezakegun zaintzen.
- **ETXEKO JAKINTZAK:** etxeko ikasketak autonomia pertsonalerako, etxeko lanak negoziazio edo gatazka gisa.
- **BERDINTASUNIK EZAREN ANALISIA:** denboren erabilera gizon zein emakumeengan, lanaren sexu-banaketa, berdintasuna bultzatzen duten gizonen jarrerak, lan-bizitza eta familia bateragarri egitea, amatasun eta aitatasun arduratsuak.
- **LAN ORDAINDUA ETA IGUALITARIOA:** estereotipoak haustea; lan-munduaren historia; lanaren sexu-banaketa; diruarekiko harremana, bai gizonena, bai emakumeena; independentzia ekonomikoa independentzia pertsonalaren baldintza gisa.

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
1. Zainketaren etikak: Ikasleen interes, garapen, kultura eta jatorriarekiko errespetua. Errespetatzea pertsonak egitea da. Emoziroi izena jartzea, haien adierazpena estereotipatu gabe. Zainketa-lanak aitortu, zainketa baloratu eta zaintzen hasten gara. Jostailuen erabilera sexistaren aurka lan egiten dugu. Jakitun gara haurrentzako literaturaren analisiaren bitartez estereotipo sexistak transmititzen direla, bai zainketa-lanei buruzkoak, bai etxeko lanei buruzkoak. Kontakizunetan aldaketa bat proposatzen dugu, ipuinen bitartez berdintasuna lortze aldera.	1. Zainketaren etikak: “Ez zait gustatzen” erantzuna esaten eta onartzen ikastea atsegin ez ditugun ekintzen aurrean. Zainketaren uneak gozagarri bilakatzea, harreman pribilegiatua sortzea pertsona helduarekin. Jasotako zainketa-lanak baloratzea, baita haiek ematen dituen pertsona ere. Zaintzen laguntzea: umeak zaintzea. Panpinak zaintzea. Arraza guztietako eredu eta panpinekin jolastea. Maitasunaren txokoa. Adindunak zaintzea: geriatriko bat bisitatzea, jarduerak egitea aiton-amonekin batera. Gure gelak zaintzea, baita talde guztiaren materialak ere. Tresnak eta estrategiak lantzea sortutako gatazkak modu baketsuan konpontzeko.	1. Zainketaren etikak: Erreferente profesionalak aurkeztea: emakume autonomoak, gizon zaintzaileak, elkar zaintzen duten gizonak eta emakumeak. Erreferente familiarak aurkeztea: zaintzen duten gizonak eta emakumeak, aitatasun igualitarioak, emakume autonomoak, mendekotasuna duten pertsonak zaintzea etxeetan. Ikastetxean gizon zaintzaileen ereduak ezagutzea, eta haien esperientziaren berri aditzea. 2. Berdintasunik ezaren analisia: Generoen arabera estereotipatua dagoen jostailu guztiak analizatu eta haien aurka lan egitea; haur guztiak jostailu guztiekin jostatzen dira. Ingurune familiarren etxeko lanak aztertzea. Irudiak, ipuinak, abestiak eta abar aztertu eta aldatzea. Berdintasunezko gizon-erreferenteak ematea. Era berean, berdintasunezko erreferenteak zaintzea abestietan, ipuinetan; irudi igualitarioak zainketa-lanetan eta etxeko eremuan. Ipuinen pertsonaien sexua aldatu eta horri buruz hitz egitea.

IBILBIDEA

(jarraipena) 0-6 HAUR HEZKUNTZA

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
2. Etxeko jakintzak: Lehen lanak egiten saiatzea, gure eremua igualitariora izan dadin: ordena, garbiketa otorduetan, autonomia jangelan, jostailuak biltzea, eta abar. Gauzak haien kasa egiten saiatzen direnean, onartzea beti, pertsona bakoitzaren denborak errespetatuta. Adostea etxeko lanak egitea (gure jantziak biltzea, xurgagailua pasatzea, garbitzen laguntzea, mahaia jartzea, eta abar). 3. Lan ordaindua eta igualitariora: Arazoak izanez gero, haien kasa konpontzeko proposamena egitea. Ezarritako lanak egiteko konpromisoa hartzea, baita erantzun beharreko mandatuak ere.	2. Lan ordaindua eta igualitariora: Lan eginez ikastea lan egiten. Eskolako baratze bat edo egiteko moduko antzeko zerbait sortu eta zaintzea.	3. Lan ordaindua eta igualitariora: Lanbideak aztertzea genero-estereotiporik gabe. Ikasgelako material guztiak berrikustea, lanbideen irudiak egon ez daitezen estereotipatuta. Ipuinak, abestiak, berdintasunezko irudiak lan ordainduan. Emakume suhiltzaileak, gizon erizainak, emakume garabi-gidariak eta halakoak dauden ipuinak asmatzea. Zenbait eremutan lanean ari diren gizon zein emakumeen erreferenteak erakustea. Haien erreferenteen hizkera zaintzea, adibidez: “amak zaintzen zaitu, aitak lan egiten du”. Inguruneko lanbideei buruzko ikerketa egitea, eta azpimarratu egiten ditugu estereotipoak hausten dituztenak. Ikastetxean lan egiten duten pertsona guztiak ezagutzea. Estereotipatu gabeko profesionalen erreferente zuzenak proposatzea, eta haien lanbidean hausleak diren pertsonak: emakume suhiltzailea edo ingeniaria, gizon erizaina edo garbitzailea...Berdintasunezko egoerak erakusten dituzten ipuin eta album irudiztatuz hornitzea gure ikasgelako

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
Etxeko jakintzak: Elikadura orekatua ikastea, lehen platerak kozinatzea. Etxeko ekintza txikiak planifikatzea: mahaia biltzea, jartzen laguntzea, platerak garbitzea, eta abar. Lan ordaindua eta igualitariora: Haustea gizonen eta emakumeen lan-munduaren gaineko estereotipoak. Genero-estereotipoak bilatzea gure ikasleengan. Kalitateko erreferenteak ematea lanbidea aukeratzeko katalogoa zabaltzeko. Zainketaren etikak: Jasotako zainketak aitortzea.	Zainketaren etikak: Jasotako zainketa-lanak baloratzea, baita haiek ematen dizkigun pertsona ere. Gainerako pertsonen ongizateaz kezkatzea; nire ingurunearen beharrak ikusita, zer egin dezaket nik? Lan ordaindua eta igualitariora: Ikasgelan lanak banatzea genero-estereotipoak gaindituta. Berdintasunik ezaren analisia: Ikasten dugu aldi batez izan gaitezkeela mendekotasuna duten pertsonak, baina ez beti. Etxeko lanetan eta zainketetan arduraz ez jokatzeko ere indarkeria dela erakustea. Jokabide horiek aztertu gure ingurunean eta horri buruz hitz egitea.	Zainketaren etikak: Gizon zaintzaileen erreferente zuzenak ezagutzea: hitzaldi pertsonalak, gurasoenak, aiton-amonenak, eta abar. Berdintasunik ezaren analisia: Denboren analisia gizon eta emakumeengan, hala familian nola ingurunean: zer lan egiten duen bakoitzak, gauza bakoitzaren denbora. Ikerketa. Ikasleekin batera, testu-liburuak eta ikasgelako materialak berrikustea, aztertzeko ea gizonak eta emakumeak agertzen diren lanbide guztietan. Ezagutzen dugun jendearen lanbideei buruzko analisia egin eta horretaz eztabaidan aritzea: bada lanbiderik emakumeentzat egokia ez denik? Jostailuen liburuxkak genero-ikuspegi batez aztertu eta ikasleei aztertzeko irakastea. Aztertzeko zer egiten duten gizonak eta emakumeak iragarkietan, abestietan, eta abarretan. Berdintasunik eza aztertzeko. Lan ordaindua eta igualitariora: Ikerketaren bitartez, lanbidearen arloan hausleak diren emakumeak ikusgai egitea eta aztertzeko: nor izan zen lehena... Estereotipatu gabeko erreferente profesionalak ikusgai egitea eta aztertzeko. Zientzia eta teknologiaren arloetan aritzen diren emakumei buruz ikastea, asmatzailei buruz adibidez. Ikusaraztea zer garrantzitsua den emakumeen enplegua autonomia eta independentzia lortzeko baldintza gisa, eta horri buruz hausnartu.

IBILBIDEA

12-16 DBH/ OLH

A
U
T
O
N
O
M
I
A

1
2
-
1
6

D
B
H

41

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
1. Zainketaren etikak: Hausnartzea gure eta gainerako pertsonen ongizateaz. Pertsona zaintzaile gisa agertzea zaintzeari utzi dioten edo horren konplizeak izan diren pertsonen aurrean. 2. Lan ordaindua eta igualitariora: Hausnartzea bizitza-proiektuen errealitateari buruz, lan ordaindua ardatz gisa hartuta. Eztabaidatzea arrakasta pertsonalaz zein prekarietateaz, bai norberarenaz, bai besteenaz. Balio horiek zalantzan jartzea. 3. Etxeko jakintzak: Bizitzaren egunerokoan behar diren lanez kontzientzia hartzea, hala nola elikaduraz, higieñez, inguruneke garbiketaz, jantziez... Jasotako zainketak aitortzea eta ardurakidetasuna ikastea. Ikusaraztea etxeko lanetan ardurakidetasun-falta egoteak dakartzan gatazkak. Konponbidea bilatzea gatazka horiei.	1. Zainketaren etikak: Pertsonak eta taldearen ongizatea zaintzea; ikasgela, eremu emozionalki jasangarri gisa. Eztabaidan aritzea: zer den gizon izatea, zer den emakume izatea, eta nola izan harremanak. 2. Etxeko jakintzak: Jasotako zainketak aitortzea eta ardurakidetasuna ikastea ikasgelako taldearekin. Denboren berdintasunezko banaketa bat planifikatzea denon artean. Berdintasuna errespetatzen ez duen banaketa aztertzea, baita ardurakidetasun-faltaren ondorioak ere.	1. Zainketaren etikak: Ardurakidetasunari buruzko eztabaidan aritzea testuetatik abiatuta – berdintasuna errespetatzen duten pertsonen buruzkoak izaten saiatuko gara–. 2. Berdintasunik ezaren analisia: Berdintasuna urratzen duen sozializazioa aztertzea: familian ikasitakoa, komunikabideak, bideo-jokoetako irudiak, eta abar. Lanaren sexu-banaketari buruzko jatorria ikertzea, eta horrek dakarren berdintasunik eza ere bai. Hezkidetzan lantzen duen eskola elkarrekin eraikitzea, eta ikastetxea aztertzea aldaketak egiteko. Haustea giza eta gizarte-zientziak emakumeentzat eta zientziak eta teknologia gizonentzat direlako ideia. Eskola-porrotaren kausak aztertzea (kasu gehiago izaten dira mutilengan neskengan baino). Denboren erabilerari buruzko estatistikak aztertzea, gizon eta emakumeenak, bai eta etxeko lanetan ematen duten denbora ere. Munduko beste leku batzuetako egoerari buruz ikastea: herrialdeen eta eremuen historia soziala. Ikertzea zergatik feminizatu den pobrezia. Etxeko lanei lotutako gatazkak aztertu eta adieraztea. Kontzeptu batzuk ikastea, hala nola kristalezko sabaia, soldata-arrakala, eta abar. 3. Lan ordaindua eta igualitariora: Beren lan ordainduetan hausleak diren gizonak eta emakumeak ikusgai egitea. Emakumeei buruzko ikerketa egitea lanbide-esparru guztietan eta munduko sari garrantzitsuenetan. Martxoaren 8ko historia ikastea, baita emakume langileen

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
1. Etxeko jakintzak: Etxeko lanei egiten diegun ekarpen pertsonalaz hausnartzea, eta lan berriak planifikatu eta ikastea. Kontzeptu batzuk ikastea, hala nola bizitza pertsonalaren eta profesionalaren bateragarritasuna. 2. Lan ordaindua eta igualitariora: Eztabaidan aritzea proiektu pertsonalaz, proiektu sentimentalaz eta proiektu profesionalaz. Unibertsitate-fakultateak eta mota guztietako ikasketa-eremuak bisitatzea. Irteera akademiko guztiak aztertzea genero-ikuspegiarekin, eta estereotipoak eta aurreiritziak hautsi. Ikerketa egitea independentzia ekonomikoaz independentzia pertsonalaren iturri gisa.	1. Berdintasunik ezaren analisia: Nesken artean ontzat jotzen diren harreman-moduak aztertzen ditugu, baita mutilen artean ontzat jotzen direnak ere.	1. Zainketaren etikak: Feministek zainketari buruz duten diskurtsoa ezagutaraztea. 2. Berdintasunik ezaren analisia: Lanaren historia ikastea, baita hartan izandako sexu-banaketa ere: gerra arteko garaia Europan. Ikerketa egitea munduko zenbait lekutan dagoen egoerari buruz, honako gai hauetan: lanaren sexu-banaketa, pobreziaren feminizazioa, eta abar. Aztertzea nola banatzen den aberastasuna munduan, baita horren arrazoiak eta ondorioak ere. Berdintasunik eza aztertzea agintaritza-kontzeptuan. Tratu txarren eta emakumeenganako indarkeriaren arrazoiak ikertzea. Lan-eremuko berdintasunik eza aztertzea: segregazio horizontala zein bertikala, soldata-arrakala, sexu-jazarpena eta jazarpena sexu-arrazoiengatik... 3. Lan ordaindua eta igualitariora: Ikertzea berdintasunari eta enpleguari buruzko politikak, ardurakidetasun-kanpainak eta bizitza familiarra eta profesionala bateratzeko neurriak, baita haiei buruz eztabaidatzea ere.

IKASKETA_3

Lidergoa,
ahalduntzea
eta partaidetza
soziala



zergatik?

1.

Boterea gauzatzeko aukera hainbat kausaren arabera da, eta klase, etnia, kolonizazio, sexu-orientazio, funtzionalitate eta, jakina, generoarekin lotutako aldagaiek dute eragina horretan. **Partaidetza soziala eta politika emakumei historikoki ukatu zaion eskubideetako bat izan da**, haiek bigarren mailako herritar bihurtuz.

Emakumeek botere-guneetan eta erabakiak hartzeko guneetan duten presentzia aztertu eta enpresetan, administrazio-kontseiluetan, kudeaketa-zuzendaritzetan, politika-arloko zuzendaritzetan duten ehunekoa ikusten dugunean edo hazkunde-proiektzio handiagoa duten sektoreetan begiratzen dugunean, berdintasunik ez argi eta nabaria dagoela ikusten dugu. Egia da lege-aginduengatik edo erakundeen zuzendaritza-taldeetan belaunaldien arteko erreleboa gertatzen ari delako, emakumeek eragin- eta botere-guneetan duten presentzia hazten ari dela. Baina hazkunde hori erritmo motelean eta ez behar adinakoan ari da gertatzen eta horrek aukera-galera handia eta begirada-pobretzea eragiten ditu, eta gizarte osoari eragiten dio.

Desberdintasun-egoera horretan sartzen da **neskatila-neska-emakume gisa ahalduztzera, parte hartzera, lidergoak erabiltzera eta, azken batean, herritar-eskubideak finkatzera zuzendutako ikasketa**.

NBE Emakumeak erakundearen arabera, partaidetzaren hazkunde kuantitatibo eta kualitatiboaren bidez eta erabakiak hartzeko guneetan emakumeek lidergoa izatearen bidez, baztertzen dituzten egiturazko faktore horiek aldatzea lor daiteke. *“Haiek erabakiak hartzen inplikatzeko nahitazeko aurrebaldintza bat da agenda publikoak neurri berriak har ditzan politika publikoetan diskriminazioaren eta genero-desberdintasunaren zirkulua ixten laguntzeko”.*

2.

Emakumeei lidergoa gauzatzen utzi ez dien oztopoetako bat zeregin jakin batzuk egiteko edo kargu jakin batzuk betetzeko gai ez direla barnerarazi dien **sozializazioa** izan da. Horiek eta, hedaduraz, beste emakume batzuk.

“Lider on bat” definitzen duten ezaugarriei buruz galdetzen denean, erantzun ohikoenak estereotipo maskulinoen zerrenda jasotzen du (anbizioa, arrazionaltasuna, oldarkortasuna, lehiakortasuna, trebetasun analitikoa...). Erantzun horien aurrean, emakumeentzako genero-aginduak hauekin lotzen dira: diskrezioa, pasibotasuna, osagarria...

Horri gehitzen zaio enpresa, erakunde, alderdi eta abarren ohiko antolaketa-kultura guztiz maskulinoa izan dela beti eta lidergo-estilo hori lotu izan dela arrakastarekin, aldi berean, rol femeninoekin zerikusia duen guztiari balioa kenduz. Modu horretan, emakumeen ohiko joera gizonezkoen eredu berdinu nahi izatekoa izan da, antolaketa-kultura maskulino eta maskulinizatu batean txertatzeko, berezko estilo baten garapena ezabatuz eta beste emakume batzuen arrakasta oztopatuz. Izan ere, ez dago arrakasta eta ekimena direla-eta nabarmendutako emakumezko eredu nabarmengarri nahikorik, eta ezinbestekoa izango litzateke hori neskek eta emakumeek haiengandik ikas dezaten.

3.

Lidergoa ez da aparteko dohainak dituzten pertsona gutxi batzuen kontua, gauza arrunt eta zabalduagoa da. Harreman-eremu guztietan dago, familiakoan, gizartekoan, komunitarioan, lanekoan nahiz elkarreketakoan.

Emakumeen lidergoaren froga nabarmenetako bat emakumeen garapenerako eta emantzipaziorako ekintza publikoak martxan jartzea lortu duten mugimendu feminista, sozial eta politikoetan izan duten partaidetza dago. Berdintasun-politikak mugimendu feministak eta, jarduera sozial eta politikotik, emakumeen aurrerapen kolektiboaren alde beraien boterea erabili duten beste emakume batzuek gauzatutako lidergo kolektiboaren emaitza dira.

Lidergoa ikasi egiten da. Pertsona guztiek ezagutu eta landu ditzakete komunikaziorako, plangintza eta ikuspen estrategikorako, proiektuak diseinatzeko, erakundeak zuzentzeko, taldeak koordinatzeko eta pertsonak kudeatzeko behar diren trebetasunak eta teknikak.



genero- gakoak

- **AHALDUNTZE INDIBIDUALA ETA KOLEKTIBOA**

Marcela Lagarde idatzi zuen *Emakumeak ahalduentzeko gidan* **ahalduntze hitzak “nork bere buruari ahalmena, gaitasuna eta baimena ematea” esan nahi duela eta ahalduentzea “emakume bakoitzak bere buruari ahalmena, gaitasuna eta baimena emateko prozesua dela”.**

Egile horri jarraituz, emakumeetan, ahalduentzea eraldaketa-prozesu bat da. Emakumeek “besterentzako izateari uzten diote”, hau da, “historiaren, politikaren eta kulturaren objektu” izateari utzi eta beraien bizitzaren ardatz bihurtzen dira, beraien existentziaren protagonista, “beraizentzako izaki” bihurtzen dira.

Eraldaketa horrek esan nahi du emakume bakoitzak eskubideak izateko eskubidea garatzen duela, bere agintea aitortzen duela, bere buruan konfiantza duela, bere erabakiak hartzen dituela eta erabaki horien baitan mugitzen dela. Emakume bat ahaldunduta dago garatzen joan den gaitasun horiek bere parte direnean, noizean behingoak ez direnean, bere izateko moduan sartzen direnean. Lagardek “bizi-ahalmenak” esaten dio gaitasunen multzo horri eta “bizi-potentzia” hartzea haiek barneratzeari.

Neska umeak edo neska gazteak ahalduentzea erabakiak hartzeko gaitu eta ahalduentzeko nahitaezko baldintza da eta, horrela, patriarka-sistemak alienatuta egoteari uzten diote eta eredu maskulinoetatik kanpo hartu eta erabili dezakete boterea.

Emakumeen **ahalduntzea** hiru dimentsiotan garatzen da. Bat **indibiduala, emakume bakoitzean sortzen diren eta beraien bizitzak hobetzen dituzten eraldaketa eta aldaketekin zerikusia duena. Beste dimentsio bat kolektiboa da, inguruabarrak eta berdintasun eza emakume guztiek emakume izate hutsagatik partekatzen dituztela kontzientziazteko balio duena. Eta hirugarren dimentsioa sozial-politiko da, hurrengo gakoan azalduko dena.**

• AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKOA. BERDINTASUNERAKO LIDERGOA

Berdintasunerako lidergo feminista erabiltzen duten emakumeak balio berriak ezartzen ahalegintzen dira parte diren erakundeetan, konbentzituta daudelako xede duten helburua lortzea bezain garrantzitsua dela helburu hori lortzeko modua, prozesua bera eta hori posible egiten duten pertsonen partaidetza balioetsiz.

Lidergo horrek ikuspen berritzailea du berekin eta komunikazioak, sareak sortzeak, pertsonen arteko harremanek eta partaidetzak erakundearen nahitaezko elementu gisa duten garrantzia azpimarratzen duen estilo kooperatiboaren aldeko apustua egin du.

Ahalduntzearen hirugarren maila da, **soziala eta politikoa, emakumeek gizarte zibilean eta erakunde publikoetan duten partaidetzan** gauzatzen dena, **botere-erlazioen aldaketan eta emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunean lagunduz.**

• DOMEINUEN EREDUA

Azken urte hauetan areagotu egin da lidergoa eta lidergoaren garapena praxi-modu gisa ikuspegi feministetatik teorizatzeko interes akademikoa. “Domeinuen ereduarekin” (Ricks-Scott, 2017) beste esparru bat garatu da emakume eta nesken lidergo-esperientziak aitortzeko. Ereduak hiru esperientzia-domeinu edo -gune identifikatzen ditu:

- domeinua **bera** eta konfiantza-kontzeptua.
- **erlazioen** domeinua eta “defendatzaileen” kontzeptua
- **testuinguruaren** domeinua lidergoa erabiltzeko guneak sortzeko aukera ematen duen ikuspegiarekin, erkidegoa eta familia ardatz gisa hartuta.

Lidergo-identitatearen garapenaren hiru domeinuei lagunduta (Ricks-Scott et al 2017), curriculum-diseinua oreka dezakegu emakume eta nesken lidergo-esperientziak aitortuz eta haien lider izateko guneak eta aukerak babesten ditugula bermatuz. Lidergoa esperientziaren bidez ikasten da, hau da, neskek eta mutilek lidergoa berdintasunean erabil dezaketene konpromiso sozial esanguratsu baterako aukerak sortuz. Horregatik, garrantzitsua da ikerketa lidergo-programaren erdian jartzea, ikasleek ekarpen esanguratsua egiteko plataformak eta guneak sortzea eta, aldi berean, beraiei ezagutza sortzeko oinarri sendo eta kritikoa ematea.



Gaitasuna:

*Erabakiak hartzeko norberaren
gaitasuna aitortzea eta
gainerakoen jarduera motibatua
sustatzea helburu erkideak
lortzeko.*

HELBURUAK

EREMU PERTSONALA	✓ Bakoitzak bere lidergo-gaitasuna aitortzea erraztea erabili ahal izateko. ✓ Nesken autokonfiantza eta ahalduzko pertsonala sustatzea hainbat lidergo-desafio nork bere gain hartzeko, modu arrakastatsuan gaituz gero, konfiantza hori indartu eta elika dezaten eta erronka berriei aurre egiteko aukerak gehitu ditzaten. ✓ Desberdintasun-egoerak eta boterearen banaketa desberdineko egoerak aitortzea eta egoera horiek bistaratzeko, zalantzan jartzeko eta aldatzeko gaitasun eta ahalmen pertsonala aktibatzea.
HARREMANEN EREMUA	✓ Autokontzientzia eta pertsona bakoitzak gainerakoengan duen eragina ulertzeko behar den ezagutza garatzea, errespetua, ulermena eta tolerantzia azalduz elkarlanean. ✓ Autonomiarekin eta hainbat taldetan egokitze gaitasunarekin lan egitea, taldearen premien eta lanaren helburuen arabera rol desberdinak hartuz. Norberaren eta gainerako pertsonen lidergoa erabiltzea eta onartzea, lidergo-estilo desberdinak ebaluatzea eta horietatik ikastea. ✓ Lidergoaren erabileran dagoen berdintasun eza aztertzea, eta kontu horretaz askatasunez hitz egitea, bizi izandako eta ikusitako berdintasun eza ezarri eta bidegabekeriei izena jarritz.
EREMU SOZIALA	✓ Zereginera egokitutako/sintonizatutako lidergoa, eta testuinguruarekiko sentikorra onartzea eta praktikatzeko. ✓ Partaidetzako ikerketaren trebetasunak garatzea: gaiak eta informazio garrantzitsuak identifikatzea, datu-bilketa, analisia, emaitzak jakinaraztea, etab. ✓ Talde-lan orekatua eta inklusiboa praktikan jartzea abian jarritako ikerketa-proiektu komunitarioak egikaritzean: talde bat osatzeko, erabakiak hartzeko, proiektuak kudeatzeko, erkidegoaren lotura-lanak egiteko, ingurunean ekarpen garrantzitsuak eragingo dituzten proiektuak egiteko, emaitzak aurkeztu eta zabaltzeko eta beste hainbat gauzatarako gai izatea eta gauza horiek guztiak ikasle guztiek egin ahal izatea.

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
1. Kontzientzia emozionala: sentitzen ditudan oinarritzko emozioak identifikatzeko, horiei izena jartzeko eta horiek ezagutzen eta onartzen ikasteko gai izatea. 2. Kontrol emozionala: bulkadaren kontrola lantzea eta itxaroten ikastea. Emozioak erregulatzeko estrategiak ezagutzea eta erabiltzea eta egoera zailen aurrean jarrera positiboa garatzea. 3. Identitatea: “nor naizen” aitortzeko gai izatea, neure identitatea osatzen duten identitate anizkoitzak (kulturalak, sozialak, sexualak...) onartzea eta horiekin batera bizitzea. Neska edo mutil gisa norberaren kontakizun biografikoa eraikitzen ikastea.	1. Hitz egin eta entzun: gauzak adierazteko, ideiei hitzak jartzeko eta gainerakoen iritziak interesa eta begirunea azalduz entzuteko gai izatea. 2. Enpatia: beste pertsonengan oinarritzko emozioak identifikatzeko, ulertzen ikasteko eta onartzeko gai izatea, nire emozioen desberdinak badira ere. Emozio guztien adierazpena legitimatzen eta kanalizatzen ikastea. Mutilek eta neskek antzeko egoeren aurrean emozioak zein modu desberdinean adierazten dituzten eta horrek beraien aitopenari eta posizioari nola eragiten dien ohartzea.	1. Familiaren testuingurua: Amak, aita eta hazkuntza neska-mutilen artean autoirudi positibo eta igualitarioa eratzeko gako-zutabeak direla jabetzea. Alabek eta semeek familia-ingurunean jasotzen dituzten ereduak eta mezuak zeintzuk diren ohartzea. 2. Ikastetxea nesken eta mutilen jakin-mina pizteko gune gisa, gai edo proiektu berriengatik, banaka eta taldean, eta haien aurkikuntzak partekatze motibazioa eragitea.

IBILBIDEA

(jarraipena) 0-6 HAUR HEZKUNTZA

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
4. Konfiantza: norberaren irudi positiboa eratzea, neskei eta mutilei nahi dutena lortzeko gaitasunetan eta aukeretan sinesteko. Mugen jakitun izatea eta hobekuntza-marjinak ahalduztze pertsonaleko prozesuan bertan identifikatzen ikastea.	3. Gainerakoak zaintzea: beste pertsonen premia eta nahiez - oso oinarrizko mailan-ohartzea eta gure kooperazio-eta lankidetzaz-gaitasuna identifikatzea (Lagundu al dezaket daukadan zerbaitekin, egiten dudan zerbaitekin edo dakidan zerbaitekin?). Elkarlanerako gaitasuna garatzea. 4. Eskatzen eta eskaintzen jakitea: laguntza- eta lankidetzaz-harremanak hobetzea eta aberastea. Laguntza eskatzen eta eskaintzen eta taldeko kide izaten ikastea, bi sexuen premiak eta gaitasunak aitortuz eskatzeko eta emateko orduan.	3. Ikastetxea banakako nahiz taldeko lorpenak indartzeko gune gisa. Irakasle gisa, neska eta mutilengan indartu edo baztertzen diren portaerez ohartzea eta beraien gaitasun propioetan eta ingurune motibatzaile eta iradokitzaile batean hobetzen jarraitzeko nahian batzuek eta besteek behar duten konfiantza izaten zer neurritan laguntzen duten ohartzea. 4. Ikastetxea boterearen erabileran berdintasunik eza identifikatzeko gune gisa. Desberdintasun horiek ikusten ikastea eta aurre egiteko estrategiak ezartzea.

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
1. Nitaz eta nire barruko ahotsaz fidatzea: neska banaiz, mutila banaiz, nire barnean bizi diren ahots desberdinak identifikatzen ikastea, nolako soinua duten, zer esaten didaten, zer unetan agertzen diren eta nola sentiarazten nauten jakitea. 2. Nire interes-iturriak: zer egitea gustatzen zaigun jakitea (zaletasunak, hobbyak, lanak...) eta zergatik gozatzen dudan eta gustatzen zaizkidan ohartzea. Zaletasun, interes eta abarri dagokionez, genero-estereotipoak zalantzan jartzea. 3. Nork bere burua zuzentzea: arreta eta energia konprometitutakorantz edo lortu nahi dudanerantz bideratzeko erabakitasuna. Gauzak lortzeko gaitasuna trebatzea, neskengan ikasitako segurtasun faltako jarrerrei eta mutilengan ikasitako nagusitasunekoei aurre eginez.	1. Pertsona bakoitzak gaitasun desberdinak ditu. Taldean lan egiteko gai izatea rol desberdinak nork bere gain hartuz (batzuetan lider gisa, beste batzuetan laguntzaile gisa...) eta azken helburua lortzeko pertsona guztien ekarpena zein garrantzitsua den ohartzea. 2. Ikaskide neska nahiz mutilen nolakotasunak aitortzea eta nabarmentzea eta batzuei eta besteei buruz batzuetan izaten ikasi dugun pertzepzio desberdina aztertzea.	1. Ikastetxea (ikasgela) askotariko lantaldeak sortzeko guneen sortzaile gisa; era guztietako (kultura, arraza, nortasun, lehentasun, etab.) neska eta mutilen presentziari erreparatuz, berdintasun-gabezia guztiak aitortuz eta aniztasun horren kudeaketa on batean esku hartzeko gai izanaz. 2. Ikerketa-proiektuak proposatzea, hainbat iturri erabiliz dokumentatzea eta azken emaitza jendaurrean aurkeztea eskatzen dutenak. Lidergoa, rolen banaketa, zereginaren jarraipena eta kontrola eta gunearen eta hitzaren erabilera neska eta mutilen artean modu orekatuan erabiltzera behartuz.

IBILBIDEA

12-16 DBH/ OLH

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
1. Nire etorkizuneko irudia eta arlo publikoan ditudan aukerak eraikitzen. Nire etorkizun profesionalaren irudi bat bistaratzen hastea, genero-arloko itxaropen sozialetatik haratago, norberaren nahi eta gaitasunetik eta izateko ahalmenetik. 2. Irizpide propioa garatzeko gaitasuna eta neure erabakiak erantzukizunez eta autokritika eginez hartzeko gaitasuna. Nire ahalmen pertsonalaren jakitun izatea. 3. Nire jarduerak gidatu eta lagunduko dieten balio etiko pertsonalak eta taldekoak garatzea eta horiekin konprometitzea (berdintasuna, solidaritatea, zintzotasuna, salaketa diskriminazioaren aurrean...).	1. Nirekin harremanak dituzten eta nirekin lan egiten duten pertsonen kritikak onartzea eta neure estimua eta gainerakoena kaltetu gabe kritikak egiten ikastea. 2. Gatazkak ebaztea eta bakoitzaren premiei erreparatuz helburu erkideak lortzeko negoziatzen ikastea. 3. Desadostasun pertsonalak gaingidatzen ikastea eta talde gisa lortu nahi den helburuan zentratzea. 4. Gure ingurunean egiten den boterearen erabilera desberdina identifikatzea. Berdintasunik eza eta horri eusten dioten mekanismoak ikusten, aztertzen eta ulertzen ikastea, modu bateratuan aurre egiteko estrategiak ezarriz.	1. Begiratu eta nork bere burua ezagutu ahal izateko askotariko erreferentziak eta ereduak eskura izatea. Beraien bizitzengan boterea duten eta nesken bizitza-ibilbideetarako pizgarri eta inspirazio-iturri izan daitezkeen askotariko emakumeen eredu igualatario eta kritikoak. 2. Ikasketa-zerbitzua. Esparru lokalean gizarte-bidegabekeriazko edo desberdintasunezko egoeraren bat hobetu edo ebaztera zuzendutako proiektu kolaboratzaileak egitea. Proiektu horiek behar bezala dokumentatu eta aurkeztu beharko dira ikasgelan. Ezarpenerako bideragarritasun partziala edo totala balioetsiko da eta ezartzea posible izanez gero, lantaldeak gidatzeko modua aztertuko da.

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
Nire bizitza-proiektua diseinatzeko. Etorkizunean eta neskek eta mutilek bizitzan zehar izan ditzaketen bizitza-aukera desberdinetan proiektatzea, izan ahal izateko eta izan nahi izateko kontzientzia eta erabaki librean oinarrituta. - Nire erresilientzia-gaitasuna garatzea diskriminazio-, desberdintasun-, ziurgabetasun-egoerei aurre egiteko. Sendotasuna eta adorea erakustea horiei aurre egiteko. Beste pertsona batzuk lider izateko guneen sorkuntzan adierazten den lidergo-identitatea finkatzea eta pertsona horiei horretan laguntzea (beste pertsona batzuen aholkulari bihurtzea). Pertsonen arrakastarako eta porroterako lekua uztea.	Errorea onartzea eta erroretik ikastea talde gisa eta nire harremanetan aurrera jarraitzeko nahitaezko urrats gisa. - Nirekin dauden pertsonen aldarrean eta motibazioan nolako eragina duen konturatzeko. Hitzeko eta ez-hitzeko hizkuntza maneiatzen jakitea. - Hasitako bideari jarraitu ahal izateko, lekukoa pasatzeko eta gainerako gaitasunak fidatzeko gai izatea.	Ezagutzetan, ikerketak, trebetasunetan, ebaluazioan edo metodologian sakontzea zeregin konplexuagoetara bideratuz, sentsibiltate politiko desberdinak kontuan hartuta eta gizarte-ingurune desberdinetan aldaketak sortzeko elkarrekin jokatzeko gai izanda, bereziki neska eta mutilei baliabideen erabiltzeko eta baliabideak eskuratzeko berdintasuna errazten dutenetan. Proiektu konplexu eta belaunaldi artekoetan txertatutako lanaren garapena, errendimendu handiko taldeen dinamikak ulertuz.

IKASKETA_4

Sexualitatea,
bizikidetza eta
indarkeriaren
prebentzioa



zergatik?

1

■ **Sexuaz eta sexualitateaz hitz egitea, nolakoak garen, nola bizi garen eta gauzak nola adierazten ditugun hitz egitea da.** Hezkuntza-ingurunean egitea haurtzaroan eta nerabezaroan sexualitatera hurbiltzea da dimentsio plural eta aberasgarri batetik pertsona bakoitzaren biografian; sexu-identitatea mutil eta nesken nortasunaren garapenaren zati bat dela eta plazera, sentimenduak, komunikazioa eta afektibitatea ere aipatzen dituela onartzea da.

Baina aurrerapenak aurrerapen, hezkuntza afektibo-sexualagatiko kezkak iraun egiten du hezkuntza-esparruan, ikusi egiten delako **gazteen arteko harreman afektibo eta sexualei sexismoak eragiten diela neurri handi batean.**

Hezkuntza-ingurunean orain arte egindako lanak adierazten du **gazteen arteko harreman afektibo eta sexualak sozialki onartutako eredu femenino eta maskulinoek markatzen dituztela.** Neskek nahiz mutilek nabarmendu egiten dute pertsona baten erakarpena sentitzeko fisikoak duen garrantzia. Era berean, gazte askok ez dituzte gaitzesten eredu diskriminatzaileek jarraitzen dituzten jokabideak, berdintasunik gabeko jokabide gisa identifikatzen dituzten arren eta, are gehiago, erakargarriak ere iruditzen zaizkie. Egia esan, berdintasunezko jokabideak izaten dituzten mutilak sarritan hain erakargarriak ez direla egiaztatzen da. Neska askok positiboki balioesten dituzte mutilen berdintasunezko balioak eta jarrerak adiskidetasun-harremanetan eta, askok, baita bikotekide egonkorra aukeratzeko orduan ere; baina beste harreman afektibo-sexual batzuetarako, bereziki noizean behingoetarako eta ondo pasatzearekin zerikusia duten harremanetarako, erakargarriagoak iruditzen zaizkie maskulinitasun menderatzailearen ereduko mutilak. Moral bikoitzak indarrean jarraitzen du oraindik, hain zuzen ere, harreman asko dituzten mutilak positiboki balioesten dituen eta gauza bera egiten duten neskak negatiboki.

2.

Alderdi horiei gehitu egin behar zaie **heterosexualitatearen arau soziala urratzen duten identitate sexualak eta aukera afektibo-sexualak ez dira onartzen eta ez daude normalizatuta** ikasgelan. Horregatik, kasu askotan, ezkutatu eta sufrimendurekin bizitzen dira.

Horregatik guztiagatik, sexismoa gainditu egin behar da harreman afektibo-sexualetan eta homofobiaren, lesbofobiaren, transfobiaren eta abarren bidezko adierazpenak ezabatu behar dira.

Eskolak lagundu egin behar du esparru afektibo-sexualeko gaitasunak eskuratzen emakume eta gizonezkoen berdintasunean eta sexu-aniztasunarekiko errespetuan oinarrituta eta estereotipo sexistetatik eta genero-aginduetatik urrunduta.

Hau da helburua: **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, nerabeek, tratu onean eta joera eta aukera pertsonal guztien errespetuan oinarritutako harreman igualitarioak erakargarriak diren eredu afektibo-sexualak eraikitzeke behar diren baliabideak izatea.**

Zentzu horretan, hezkuntza afektibo-sexual igualitarioa bultzatzeak identitate sexuala kontuan hartzea eta genero-identitatearekin eta aniztasunarekin nola erlazionatzen den kontuan hartzea eskatzen du; desira emozio propio eta eraiki gisa eta zorion pertsonalerako eta harremanerako gauza garrantzitsu gisa; erakarpena, maskulinitasun- eta emetasun-eredu hegemonikoetatik kanpo; eta desiran, zaintzan, ongizatean eta partekatu beharreko kontuetan oinarritutako harreman afektibo eta/edo sexualak, eta ez jazarpenean, kontrolean, abusan, sufrimenduan edo genero-indarkerian oinarritutakoak.

Aniztasunean, errespetuan eta eraso ezean oinarrituta, ikasleekin alderdi afektibo-sexualak lantzea, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna eta hezkidetzak eskolan lantzea dira **pixkanaka-pixkanaka sexismoarekin eta, ondorioz, genero-indarkeriari eusten dioten balio eta jokabideekin amaitzeko epe luzeko bermea.**



genero- gakoak

- **AFEKTIBITATEA, GENERO– IKUSPEGITIK**

Garrantzitsua da ikasleek hausnartzea gure bizitza afektiboa ez dela mugatzen maitasun- edo bikote-harremanetara eta aitortzea gure barnearekin eta beste pertsonekin ere lotura baduela. Emozioek eta sentimenduek leku pribilegiatua hartzen dute pertsonen arteko harremanetan. Sentimenduak gizon-emakumeen ondare diren arren, generoarekin lotutako aldeetako bat pertsonen, sexuaren arabera, sentimendu batzuk adieraztearen eta beste batzuk erreprimitzearen inguruan jasotzen duten heziketan dago.

- **SEXU–NORTASUNA, GENERO–IDENTITATEA ETA SEXU–ORIENTAZIOA**

Aniztasun afektibo-sexualak askotariko sexualitateez hitz egitea eskatzen du, eta horietako bakoitzean hainbat elementu ageri dira, esaterako, sexu biologikoa, genero-identitatea eta -adierazpena eta desiraren orientazioa.

- **Sexu-nortasunak** pertsona bakoitzak bere sexu-izaerari buruz duen pertzepzioa aipatzen du.
- **Sexu-orientazioa** terminoa pertsona batek beste batzuekiko izaten duen desira erotikoa, sexual eta/edo afektiboaren orientazioa adierazten du.
- **Genero-identitatea** gizon eta emakumezko kategoriaren inguruan definitutako giza talde batekoa izateko sentimenduari buruzkoa da eta horietako batekin identifikatzen da (bitarra), edo biek (ez-bitarra) edo bietako inorekin ez (genero gabea).
- **Genero-adierazpena:** pertsona batek bere sexu-nortasuna eta/edo generoa gizarteari azaltzeko duen modua, bere estetikaren, portaeren, jarreraren eta adierazpenen bidez.

- **LGBTIfobiak**

Aniztasun afektibo-sexuala errealitate bat da. Hala ere, aniztasun hori naturaltasunez bizi duen gizarte igualitarioa errealitatetik urrun dago. LGBTI fobiak dira heterosexualitatearen barruan sartzen ez diren sexu-nortasun eta -orientazioekiko arbuio- eta gorroto-formak.

- **EDERTASUN-KANONAK**

Edertasun-kanonak aldatu egiten dira kultura eta une historikoen arabera. Hala eta guztiz ere, kasu guztietan edertasun-eredu bat konfiguratzea, batez ere emakumeentzat, **indarkeria-forma bihurtzen diren eredu estetikoak inposatzean** datza.

Gaur egun, edertasun- eta estetika-arloko sozializazioa protagonismo handia ari da izaten, komunikabideen eragin handiarekin. Zenbait fenomenok, bestalde, kezka handia eragiten dute, esaterako, nesken hipersexualizazioak. Mendebaldeko munduko zenbait kanon (argaltasuna, betiereko gaztetasuna...) ondorio larriak ari dira izaten (gaixotasun mentalak, elikatze-jokabidearen nahasteak, autoestimu baxua...) edertasun-eredu irreal eta idealizatuarekin betetzeko ezintasunaren aurrean sortzen den etengabeko nahigabeagatik.

- **MAITASUN ERROMANTIKOA, ERAIKUNTZA SOZIAL GISA**

Maitasuna esaten diogun sentimendua testuinguruan kokatuta hartu eta aztertu behar da, denborari eta kulturari erreparatuz. Maitasun erromantikoaren berreraikuntza burgesak heterosexualitatetik eta bikotearen barruko rolen banaketa batean oinarrituta definitu zuen.

Maitasun erromantiko horren inguruan **maitasun erromantikoaren mito** gisa (laranja erdiaren mito, jeloskortasunarena, etengabeko grinarena, maitasunaren ondoriozko aldaketarena, erabateko entregarena, maitasuna sufrimenduarekin bateratzearena...) ezagutzen diren sinesmenen multzoa konfiguratzen da.

Irudi idealizatuak dira, botere-desorekak betikotzeko balio dutenak, neurriz kanpoko konpartimentuen tolerantzia ahalbidetzen dutenak eta harremanetan gauza natural edo normaltzat jotzen direnak eta, horregatik, aldaketarekiko erresistenteak direnak. Funtsezkoa da ikasleekin ondorioak eta mito horiek emakumeen aurkako indarkeriarekin duten lotura aztertzea.

- **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA**


Hala proposatzen du *Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legeak* – apirilaren 10ekoa–, honela definitzen duenean: **“emakumeen kontrako indarkeria da emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak.**

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima kontzeptuaren barruan sartzen dira adingabeko neskak.

Plan egiteko orduan kontuan izan da emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa ikasketa guztietan sartzen dela eta indarkeria horri zeharka aurre egiten zaiola, baina berariaz aurre egiten zaio ikasketa honetan, harremanen eremuan eta tratu onak sustatzeari eta berdintasunezko harreman-ereduei lotuta.

HELBURUAK

EREMU PERTSONALA	✓ Gorputza ezagutzea eta bere hazkuntzaren kontzientzia hartzea, desberdintasunak aitortuz, gorputz-ongizatearen ohiturak garatuz eta gorputza sentrazio-, erlazio-, komunikazio-, gogobetetasun- eta plazer-iturri dela onartuz. ✓ Nork bere burua neska edo mutil gisa aitortzea, bere sexu-nortasuna modu positiboan onartuz, genero-elementu diskriminatzailearik gabe eta geure burua emakume eta gizonezko gisa adierazteko modu desberdinak ulertzen lagunduz, batzuetan zaletasun, lehentasun eta nolakotasun berdinak eta beste batzuetan desberdinak izan ditzakegarik, gustuei dagokienez, baina gure nortasuna galdu gabe. ✓ Sexualitatearen ugalketa-alderdia ezagutzea, hura kudeatzeko tresnak eta trebetasunak jarritz eta ama edo aita izateko erabaki arduratsua ahalbidetuz.
HARREMANEN EREMUA	✓ Inguruneke pertsona esanguratsuekin lotura afektiboak ezartzea, konfiantza, segurtasuna eta sentimendu zein ideien adierazpena ezaugarritzat dituztenak. ✓ Errespetuan eta hazkunde pertsonalean oinarritutako bikoteen arteko harremanak ahalbidetzea eta indartzea. ✓ Gure harremanetan tratatu txarrak identifikatzeko, gure harremanetan abusuzko portaerei mugak jartzeko eta eraso sexista edo sexual baten aurrean erantzun egokia emateko tresnak eta trebetasunak bideratzea. ✓ Norberaren ideiak, sentimenduak, afektuak eta desirak adierazten laguntzen duten gaitasunak garatzea; gainerako pertsonak ulertzea, errespetatzea onartzea eta arbuiatzea; bizipen afektibo-sexual positiboak, arduratsuak eta osasuntsuak izatea.
EREMU SOZIALA	✓ Oinarrizko bizikidetzaren irizpideak ezagutzea eta erabiltzea, berdintasunean, errespetuan eta erantzukizunean oinarritutakoak. ✓ Edertasun-ereduei buruz, ingurune hurbileko pertsonen artean ezartzen diren harremanei buruz, sexua merkaturatzeari buruz eta sexu-indarkeriari buruz azterketa kritikoak egiteko tresnak eta trebetasunak jartzea. ✓ Identitate maskulino eta femeninoen aniztasun handia, familiako bizikidetzaren eredu desberdinak, eta amatasunarekin eta aitatasunarekin zerikusia duten prozesuetako aniztasun handia aitortzea.



Gaitasuna:

Errespetua eta berdintasunezko hazkunde pertsonala errazten dituzten harreman afektibo, sexual eta bizikidetzakoak adierazteko eta ezartzeko gaitasun pertsonala ezagutzea eta onartzea.

egitura

Banaketa bikoitzaz gain (HEZKUNTZA-ETAPA+ESPARRUA), ikasketako ibilbidearen edukiak 4 irakurketa-gakoren baitan biltzen dira, haren garapena gidatu duten adituek eta irakasle-taldeak identifikatuta:

- **GORPUTZA:** Norbanakoen desberdintasun fisikoak. Gorputzaren zaintzak. Gorputz sexudunen aniztasuna bistaratzea. Gorputza ideia-, sentsazio-, komunikazio- eta plazer-iturri gisa. Gizakien erantzun sexuala. Gorputz-aldaketak sexu-estimuluen aurrean.
- **JATORRIA:** Pertsonen jatorria. Aita eta ama izatearen erabakia.
- **NORTASUNA ERAIKITZEN:** Nor naizen onartzea. Emakumeen eta gizonezkoen nortasunak eraikitzea aniztasunean oinarrituta.
- **HARREMAN AFECTIBO-SEXUALAK, ETIKA HARREMANETAN:** Atxikimendua eta lotura afektiboak. Maitasunezko sentimenduak eta harremanak. Familiako bizikidetzaren eredu desberdinak. Sexualitatea komunikazio-, plazer-, afektu- eta ugalketa-iturri gisa. Iruditeria erotikoren eraikuntza. Maitasun-motak eta mito erromantikoen dekonstrukzioa.
- **INDARKERIAREN BERARIAZKO PREBENTZIOA:** Sexualitatea eta harreman desatseginak. Sexu-indarkeria. LGBTifobiak. Sexualitatearen bizipena eta teknologia berriak.

IBILBIDEA

0-6 HAUR HEZKUNTZA

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
1. Gure gorputza: Gure gorputza hazi egiten da. Norbanakoen desberdintasun fisikoak. Gorputzaren zaintzak. Gorputza sentrazio-, komunikazio- eta plazer-iturri gisa, eta zentzumenen egitekoa. Gure zaintza pertsonala erraztuko duten irizpideak. 2. Gure jatorria: Neskek eta mutilek pertsonen jatorriari buruz adierazten dituzten interesak eta bitxikeriak: ernalketa, fetua garatzen den tokia, haurdun dagoenaren eta bere umearen zaintzak. 3. Nire identitatea eraikitzen: “nor naizen” aitortzeko gai izatea, neure identitatea osatzen duten identitate anizkoitzak (kulturalak, sozialak, sexualak...) onartzea eta horiekin batera bizitzea. Neska edo mutil gisa neure kontakizun biografikoa eraikitzen ikastea.	1. Gure jatorria: Aitaren, amaren edo zaintzaren pertsona arduradunaren egitekoa zaintzetan. 2. Harreman afektibo-sexualak, etika harremanetan: Atxikimendua. Lotura afektiboak. Inguratzen gaituzten pertsonen sentimenduak eta maitasun-harremanak. Familia-aniztasuna. Familiako bizikidetzaren eredu desberdinak. Sexismo-egoeren azterketa haur-hezkuntzan.	1. Nire nortasuna eraikitzen: Emakumeen eta gizonezkoen identitateen irudikeriak eta errealitateak eraikitzea ahalbidetzea aniztasunean oinarrituta (ipuinak, abestiak, joko sinbolikoak eta dramatizazioak... tresna gisa hartuta). Sexuen errespetuzko aitortzea familiekin egiten den lanean. Seme bat izatearen balioa, alaba bat izatearen balioa. Nola etiketatzen dugu bere izateko modua neska bada edo mutila bada. Haurtzarotik egindako sexualizazio femeninoaren analisi kritikoa. 2. Gure gorputza: Gorputzen aniztasuna bistaratzea, denak sexudunak eta balioetsiak. Sexu maskulino eta/edo femeninodun eta adin, kultura eta aniztasun funtzional desberdineko pertsona desberdinen irudiei buruzko hausnarketa. Haur-sexualitatearen aitortzea izakiak jaiotzen direnetik, eskola- eta familia-esparruan sexualitate horren aitortzea eta bizipena despenalizatuz (jakin-min sexuala, haurren joko erotikoak...). Eskolan nahiz familian sexu-kontuei buruzko komunikazioan elkarrikeria eta konfiantza sustatzea adingabeen aurkako abusuen prebentzio gisa.

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
1. Gure gorputza: Norbanakoen desberdintasun fisikoak. Gorputzaren zaintzak. Gorputza sentrazio-, komunikazio- eta plazer-iturri gisa. Gure zaintza pertsonala erraztuko duten irizpideak. Aldaketa fisiologikoak aurrenerabezaroan eta nerabezaroan. Gizakien erantzun sexualaren fisiologia. Gorputz-aldaketak sexu-estimuluen aurrean. 2. Nire nortasuna eraikitzen: Gizakien sexu-gertakaria. Genero-identitatea eta aniztasuna. Irudi birtualaren analisisa genero-ikuspegitik. 3. Harreman afektibo-sexualak, etika harremanetan: Sexu-orientazioa: homosexualitatea, heterosexualitatea eta bisexualitatea. Sexu-desira. Komunikazio- eta negoziazio-trebetasunak. Erabaki informatuak hartzea.	1. Harreman afektibo-sexualak, etika harremanetan: Sexualitatea komunikazio-, plazer-, afektu- eta ugalketa-iturri gisa. Sexu-jokabideak: musuak, ferekak, besarkadak... Afektuen adierazpena. Erakarpena, maitemintzea, maitasuna. Jazarpena eta ziberjazarpena. Eremu birtualak harreman-eremu gisa. Sexu-orientazioa: homosexualitatea, heterosexualitatea eta bisexualitatea. Sexu-desira. LGBTIfobiak. Komunikazio- eta negoziazio-trebetasunak. Erabaki informatuak hartzea. 2. Nire nortasuna eraikitzen: Gizakien sexu-gertakaria. Sexualitatearen harreman-eremua. Ugalketa-esparrua. Aniztasuna.	1. Nire nortasuna eraikitzen: Haurtzarotik egindako sexualizazio femeninoaren analisi kritikoa. Neskaren edo mutilaren eskola-, familia- eta adiskide-ingurunean mendealdeko gizartean eta beste kultura batzuetan nagusi diren edertasun-ereduei buruzko hausnarketa analisi kritikoa (komunikabideak, sare sozialak eta publizitatea analisirako tresna gisa) sustatzea.). Erakarpen-ereduak genero-ikuspegitik. 2. Harreman afektibo-sexualak, etika harremanetan: Pertsonen arteko, emakumeen arteko, gizonezkoen arteko eta gizon eta emakumeen arteko harreman afektiboak buruzko irudikariak eta errealitateak eraikitzea ahalbidetzea. Irudikari eta errealitate horietan, desiraren, erakarpenaren eta maitasunaren zirriborroarekin batera, tratatu onak eta berdintasuna nagusi izango dituen etika egongo da. Zenbat maite duten elkar? Zergatik musukatzen dira? Bikotea al dira? (ipuak, abestiak, joko sinbolikoak eta dramatizazioak... tresna gisa). Familiako bizikidetzako askotariko ereduak bistaratzea eta aitortzea. YouTubeko zenbait katetako, serieetako, abestietako eta abarretako indarrezko harreman-motei buruzko mezuen analisi

IBILBIDEA



12-16 DBH/ OLH

16-18 BATXILERGOA/ELH-GLH

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
1. Gure gorputza: Norbanakoen desberdintasun fisikoak. Nerabezaroan ohikoak diren aldaketa biofisiologikoak eta psikologikoak. Geure gorputzarekin gustura eta pozik sentitzea. Gorputzaren zaintzak. Gorputza sentsazio-, komunikazio- eta plazer-iturri gisa. Transmittitu eta sentitu. Plazer erotikoa: zaletasun eta plazeraren aniztasuna. Plazer-indartzaileak: komunikazio ona, zintzotasuna, errespetua, konfiantza. Gogobetetasuna eta gozamena harremanean edo bakarka. Gizakien erantzun sexualaren fisiologia. Sexuen arteko desberdintasunak. Gorputz-aldaketak sexu-estimuluen aurrean. Gizonezkoen eta emakumeen anatomia eta fisiologia. Hilekoaren zikloa. Hilekoa sexu-osasun gisa. Edertasun-eredu estetikoak. 2. Gure jatorria: Ama izatea, aita izatea erabakitzea. Erantzukizuna. Umeen zaintza eta arreta duinerako gutxienekoak.	1. Harreman afektibo-sexualak, etika harremanetan: Sexualitatea komunikazio-, plazer-, afektu- eta ugalketa-iturri gisa. Pertsonen arteko erakarpene/erakarpene erotikoa. Zergatik erakartzen gaituzten pertsonak, erakarpene-motak. Sexu-jokabideak: musuak, ferekak, besarkadak... Etika pertsonen arteko harremanetan eta sexu-harremanetan: adostasuna, plazer partekatua, sexu-osasuna, leialtasuna, berdintasuna eta elkar zaintzeak. Pertsonen premia afektiboak bizitzan zehar. Lotura afektiboak: gogoko izan, zaindu eta maitatu. Gogoko zaituztela, zaintzen zaituztela eta maite zaituztela sentitu. Maitemintzea. Maitemintzea kudeatzen ikastea. Loturak eta desloturak. Maitemintzea eta autonomia pertsonala. Maitemintzea eta sexismoa. Maitemintzearen arriskuak. Jeloskortasuna. Gatazka-egoerak enpatian eta gainerako pertsonen eskubideen aitortzan oinarrituta ebaztea. Elkarlanean aritzea eta laguntzea. Iruditeria erotikoa aniztasunean eta ez-sexismoan oinarrituta eraikitzea. Maitasuna: maitasun-motak, analisi kritikoa. Maitasuna eta bikotea. Bikotearen teoria. Maitasuna eta bizikidetzaren indarkeriaren eta tratu txarren aurka.	1. Harreman afektibo-sexualak, harremanen etika: Iruditeria erotikoa aniztasunean eta ez-sexismoan oinarrituta eraikitzea. Maitasuna: maitasun-motak, analisi kritikoa. Maitasuna eta bikotea. Bikotearen teoria. Mito erromantikoaren dekonstrukzioa: jeloskortasunaren mitoa, laranja erdiaren mitoa, maitasunaren ondoriozko aldaketaren falazia, maitasunaren eta sufrimenduaren bateragarritasuna, etab. Erakarpene-ereduak nerabezaroan: genero-ikuspegian oinarritutako analisi kritikoa. Neskak arrisku-egoeretan jartzen dituzten mitoak sexisten dekonstrukzioa eta analisisa. Familiako bizikidetzaren-eredu desberdinak. Sexu- eta ugalketa-osasuna. Sexu- eta ugalketa-osasunaren inguruan dauden baliabideak hurbiltzea, sexu- eta ugalketa-osasun zentroetara egiten diren bisitak sustatuz, ikasleek ezagutu ditzaten horretarako iristeko sarbideak eta zentro horietan lantzen diren gainerako esparruak: Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko, sexologiari buruzko, erizaintzari buruzko, emaginari buruzko eta ginekologiari buruzko informazioa eta aholkularitza.

IBILBIDEA

(jarraipena) 12-16 DBH / OLH

16-18 BATXILERGOA/ELH-GLH

EREMU PERTSONALA	HARREMANEN EREMUA	EREMU SOZIALA
3. Harreman afektibo-sexualak, etika harremanetan: Sexu-orientazioa: homosexualitatea, heterosexualitatea eta bisexualitatea. Gizakien sexu-erantzuna: desira, eszitazioa, orgasmoa, gogobetetasuna/asegabetasuna. Sexu-harremanen inguruko emozioak: desira, maitasuna, samurtasuna, txera. Sexu-harremanen inguruko emozioak: lotsa, erruduntasuna, ziurgabetasuna. Sexu-desira. Komunikazio- eta negoziazio-trebetasunak. Erabaki informatuak hartzea.	2. Sexualitatea eta eremu birtualak: TRIC (Erlazioaren, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) eremu afektibo eta sexual gisa. Eremu birtualen erabilera harreman afektibo-sexualetan. Emakumeen sexualizazioaren analisia eremu birtualetan. Ziberdelitu sexualak: sexting, sexu estortsio, grooming, eta abarren inguruko argazki eta bideoak zabaltzea eta/edo argitaratzea. Ziberjazarpena genero-kontuengatik. Genero-indarkeriaren protokoloa. 3. Indarkeriaren berariazko prebentzioa: Sexualitatea eta harreman desatseginak: Sexu-abusuak eta indarkeria sexista. Indarkeriaren kausak nerabeengan: matxismoa, maskulinitasun hegemonikoa eta maitasun erromantikoaren eraikuntza. Sexu-indarkeria bikotetik kanpo eta bikote barruan. Indarrezko eta "baimen faltsuagatik" sexu-indarkeria. Sexu-erasoa. Sexu-hertsadura. Harreman toxikoak. Harreman toxikoak genero-indarkeria duten harremanen aurka. LGBTIfobiak.	2. Nire nortasuna eraikitzen: Familia-aniztasuna eta -dibertsitatea bistaratzea (etniak, osagaiak, ohiturak...). Pertsona lesbiana, gay, transexual eta bisexualek osatutako familiei hitza ematea eta bistaratzea. Ikasleen artean LGTB mugimendua ezagutaraztea, errespetuzko jokabideak sustatuta eta sexu-egoera gorabehera pertsona guztiek eskubideak dituztela aldarrikatzeko jokatutako funtzio soziala aitortuta. 3. Indarkeriaren berariazko prebentzioa: Genero-indarkeriak nerabeengan izandako prozesua: genero-indarkeriaren eskailera ziklikoa nerabezaroan. Gure Erkidegoan indarkeria-prebentzioaren arloan dauden baliabideen ezagutza. Sexu-indarkeriaren adierazleak nerabeengan. Ikasleengan Hezkuntza Erkidegoan hausnarketa kritikoa sortzea eta kontzientzia sustatzea jai- eta aisia-esparruan dagoen indarkeria sexistaren inguruan, indarkeria hori prebenitzea eta desagerraraztea xede hartuta. Ikasgelaren ingurunean hausnarketa kritikoa ahalbidetzea mendebaldeko gizartean sexualitatea merkaturatzeari dagokionez: pornografia, bideoak, jokoak. Ikasleen artean jarrera kritikoa sustatzea sexualitatearen bizipenaren eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien kudeaketari dagokionez.

4.

Hezkidetza- komunitateak

Hezkuntza-komunitate bakoitzaren konpromisoa toki-ingurune bakoitzean

Etengabe ari gara ikasten bizitza osoan zehar, zeharkatzen ditugun eremu guztietan, izan presentzialetan, izan birtualetan. Horregatik, **bi erronka nagusi ditu SKOLAE programak:**

1.

Familiak eta toki-ingurunea hezkidetzaren aldeko konpromisoan integratzea. SKOLAEk familia, gazte eta haurrei zuzendutako prestakuntza- eta orientazio-programa espezifikoak bultzatuko ditu, modu koordinatuan eskola-eremutik kanpo inguruko beste entitate batzuekin; helburua hezkidetzeta-balioetan (eskola-ekintzarekin partekatze modukoak izan beharko lukete balio horiek, baita horren hurbilekoak eta horrekin koherenteak ere) oinarritutako inguruneak (familiar, kultural, kirolean eta aisialdian) sortzea da.

2.

Ikasleek **gizarte-inguruneari egindako ekarpenetik** ikas dezatela ahalbidetzea, partaidetza sozialari, lidergoari eta norberaren zein taldearen ahalduzko ikasketa ikasgelatik kanpo gertatuko dela. Berdintasunaren aldeko konpromisoa gauzatu eta erakutsita zein emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko kultura egalitarioa sortzen lagunduko duten, batetik, eta, bestetik, indarkeriari, diskriminazioari eta generoaren arloko berdintasunik ezari argi eta sendo aurre egingo dieten jokabide eta eredu berriak ikusgai eginda.

5.

Eranskinak

1. eranskina. Araudia
2. eranskina. Aurrekariak
3. eranskina. Ikastetxe pilotuak
4. eranskina. Prestakuntza-plana

1. eranskina. Araudia

Ugari dira Hezkuntza Departamentua, ikastetxeak eta, oro har, hezkuntza-komunitatea hezkidetzan oinarritutako eskola-eredu bat lortzeko modu aktiboan lan egitera premiatzen duten aholku eta betekizunak biltzen dituzten arau, plan eta bestelako elementu estrategikoak.

Hezkidetzaren Planaren legezko esparrurako esanguratsuenak direlako, honako hauek aukeratu dira:

- 1/2004 LEGE ORGANIKOA, ABENDUAREN 28KOA, GENERO-INDARKERIAREN AURKA OSO-OSOKO BABESA EMATEKO NEURRIEI BURUZKOA
- 2/2006 LEGE ORGANIKOA, MAIATZAREN 3KOA, HEZKUNTZARI BURUZKOA
- 3/2007 LEGE ORGANIKOA, MARTXOAREN 22KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERTINTASUN ERAGINGARRIRAKOA
- 204/2010 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 16KOA, HEZKUNTZAKO KONTSEILARIAK EMANA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO ETA PRIBATU ITUNDUETAKO BIZIKIDETZA ARAUTZEN DUENA
- 14/2015 FORU LEGEA, APIRILAREN 10EKOA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKOA
- 103/2016 FORU DEKRETUA, AZAROAREN 16KOA, SEXU- ETA UGALKETA-OSASUNAREN ARLOKO PRESTAZIOAK EZARTZEN DITUENA
- 8/2017 FORU LEGEA, EKAINAREN 19KOA, LGTBI+ PERTSONEN BERTINTASUN SOZIALARI BURUZKOA

Bat datoz bai berdintasunaren arloko araudia, bai hezkuntzaren arloko araudi espezifikoak adieraztean garrantzitsua eta beharrezkoa dela hezkuntza-sisteman esku hartzea emakumeen zein gizonen aukera-berdintasunean aurrera egiteko.

Arauek aipatzen dituzten alderdien artean, hauek nabarmendu daitezke: curriculumaren edukia, material didaktikoak, egitura eta pertsonekin lotutako neurriak, hezkuntza-sistemaren langileak gaitzea, ikuskeraren lana, berdintasunaren arloko arduraduna ordezkari handieneko organoetan, eta genero-indarkeriaren aurka egitera zuzendutako neurri eta politikak, eskola-komunitateei, zerbitzuetako langileei eta guraso-elkarteei zuzendutakoak ahaztu gabe.

Araudia garatzeko, Nafarroako Gobernuak urteroko Bertintasun Plana, Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko neurri buruzko Plana, Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko hezkuntzako Plan Sektoriala eta Hezkidetzaren Plana daude, baita egungo Nafarroako Gobernuak akordio programatikoa ere.

Egitura honen arabera sailkatzen dira aukeratu diren arauetan bildutako legezko mandatuak*:

	Zeharkakotasuna hezkuntza- politiketan	Curriculumaren edukia	Material didaktikoak	Koordinazio- pertsonak eta -egiturak	Langileen gaitzea	Ikuskapena	Genero- indarkeria	Guraso- elkarteentzako prestakuntza
2/2006 LEGE ORGANIKOA, MAIATZAREN 3KOA, HEZKUNTZARI BURUZKOA	1., 2. eta 84. art. eta 25. xedapen gehigarria	17. eta 23. art.	4. xedapen gehigarria	126. eta 127. art.	102. art.	151. art.	21. xedapen gehigarria	
3/2007 LEGE ORGANIKOA, MARTXOAREN 22KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKOA	23. art.		24. art.	24. art.	24. art.			
14/2015 FORU LEGEA, APIRILAREN 10EKOA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKOA	10., 13. eta 14. art.	12. eta 16. art.	12. art.		11. art.	13. art.	10. eta 15. art.	
1/2004 LEGE ORGANIKOA, ABENDUAREN 28KOA, GENERO-INDARKERIAREN AURKA OSO-OSOKO BABESA EMATEKO NEURRIEI BURUZKOA	4. art.		6. art.	8. art.	7. art.	9. art.	5. art.	
204/2010 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 16KOA, HEZKUNTZAKO KONTSEILARIAK EMANA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO ETA PRIBATU ITUNDUETAKO BIZIKIDETZA ARAUTZEN DUENA							16. eta 18. art.	
103/2016 FORU DEKRETUA, AZAROAREN 16KOA, SEXU- ETA UGALKETA-OSASUNAREN ARLOKO PRESTAZIOAK EZARTZEN DITUENA	3. art., 3. puntua 10. art., 2d puntua 12. art., c puntua 15. art., i puntua	7. art. 7. xedapen gehigarria, 3. puntua	7. art.	4. art., 2g-h puntua	4. art., c puntua 6. art. 10. art., 2c puntua			4. art., 1c puntua 4. art., 2f puntua 5b xedapen gehig.
8/2017 FORU LEGEA, EKAINAREN 19KOA, LGTBI+ PERTSONEN BERDINTASUN SOZIALARI BURUZKOA	26. art.	27. art.		29. art.	28. art.			

*Egokitzapena, Hezkidetzarako eta hezkuntza-sisteman genero-indarkeria prebenitzeko Plan Zuzentzailean planteatutako egituratik (Eusko Jaurlaritzza)

ZEHARKAKOTASUNA HEZKUNTZA-POLITIKETAN

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-maila guztietarako legezko esparrua ezartzen du hezkuntzari dagokionez. Lehenengo printzipioa honako hau da: <<herritar guztiei (gizonezkoei zein emakumezkoei) hezkuntza-sistemaren maila guztietan kalitateko hezkuntza emateko eskakizuna>>. 1. artikuluan, printzipio gisa, <<eskubide-berdintasunaren eta aukera-berdintasunaren garapena, eta gizonen zein emakumeen arteko berdintasun eraginkorraren sustapena>> ezartzen du, eta, 2. artikuluan, Hezkuntzaren helburuetako bat gisa, <<funtsezko eskubideekiko eta askatasunekiko eta gizonen zein emakumeen arteko berdintasun eraginkorrekiko errespetuan prestatzea, aniztasun afektibo-sexuala onartzea, eta portaera sexistak gainditzeko desberdintasunen balioespen kritikoa egitea>>.

84. artikuluan, bestetik, ikasleen onarpena, bai ikastetxe publikoetan, bai pribatuetan arautzen du. Zehazki, 3. atalean, adierazten du **sexua ez dela inola ere diskriminaziorako arrazoia izango eskolatzeari dagokionez**.

Hogeita bosgarren xedapen gehigarria gizonen zein emakumeen arteko berdintasun eraginkorraren sustapenari buruzkoa da. Arauak hau ezartzen du: <<Eskubideen eta aukeren berdintasuna bultzatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzeko, **hezkuntza-etapa guztietan hezkidetzaren printzipioa garatzen duten zentroek lehentasuna izango dute** Lege honetan jasotako aurreikuspenen aplikazioan, Espainiak izenpetutako nazioarteko hitzarmenetan xedatutakoa aparte utzi gabe>>

Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak,

honako hau ezartzen du 23. artikuluan: <<Hezkuntza-sistemak bere helburuen artean izango du ikasleak heztea, oinarritzko eskubide eta askatasunak errespetatzeko, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzeko. Era berean, hezkuntza-sistemak kalitate-printzipioen artean izango ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarria eragozten duten oztopoak ezabatzea eta batzuen zein besteen artean berdintasun osoa suspertzea>>.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legeak, apirilaren 10ekoak, 10. artikuluan, zenbait prebentzio-neurri arautzen ditu hezkuntza eremuan, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko.

a) Hezkuntza maila desberdinetako curriculumetan behar diren edukiak txertatuko ditu, giza eskubideen errespetuan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean oinarritutako heziketa lortzeko.

b) Emakumeen eta gizonen esperientzia, gaitasunak eta ekarpen soziala eta kulturala berdin balora daitezela sustatuko du, estereotiporik eta diskriminaziozko jarrerarik gabe.

c) Mendekotasunean, kontrolean eta indarkerian oinarritzen diren harremanak sortzen dituzten estereotipoei aurka egiteko hezkuntza neurriak garatuko ditu.

d) Protokoloak egingen ditu hezkuntzaren esparruan emakumeen kontrako indarkeria, nerabeen eta gazteen artean gertatzen dena, identifikatzeko eta horri erantzuteko.

e) Heziketa afektibo-sexuala eta genero indarkeriaren prebentzioa irakasgaia garatuko du hezkuntza-maila guztietan, eta hezkidetzatza plan bat taxutuko du, ikastetxe guztietan ezinbestean garatu beharko dena.

13. artikuluan, ondoko norabideak barnebiltzen ditu hezkuntza-plan eta proiektuetarako.

1. Hezkuntza Administrazioak aholkularitza berariazkoa emanen du hezkuntza arloko berdintasunari eta generoko diskriminaziorik ezari buruz, euskarria izan dadin ikastetxeen orientazio lanerako eta irakasleentzako laguntza zentroetarako.
2. Hezkuntza maila guztietako tutoretza-lanerako planetan atal bereziak ezarriko dira emakumeen kontrako indarkeriaren arrazoiei buruz hausnartzeko, bai eta ikasketa eta lanbideetarako orientazioa ere, pertsonen gaitasunetan eta trebetasunetan oinarritua, eta ez sexuan.
3. Ikastetxeek egindako proiektuetan jokabideetarako ildoak txertatuko dira, honakoak sustatuko dituztenak: pertsona guztien gorputzari begirunea izateko jarrerak, autoestimua, norberaren segurtasuna, eta errespetuzko eta indarkeriarik gabeko giza harremanetarako gaitasuna eskuratzea. Horretarako, hezkuntza arloko eskumena duen departamentuaren aholkularitza izan dezakete.
4. Hezkuntza administrazioak bultzatuko du berariazko proiektuak egitea ikastetxeetan, pertsonen garapen integralari lagunduko dioten jarrerak, balioak eta gaitasunak ziurtatu eta sustatuko dituztenak.
5. Ikastetxeetako barne arauetan berariaz azaldu beharko dira balio hauetan oinarritutako bizikidetza arauak: errespetuan, berdintasunean, portaera sexisten bazterketan, giza harremanetatik indarkeria mota oro desagertzean eta, beraz, sexu indarkeriazko portaeren erabateko gaitzespenean. Portaera horietarako zuzenketa edo zehapen neurriak ere berariaz azaldu beharko dira.
6. Hezkuntza arloko eskumena duen departamentuko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak zainduko du foru lege honetan emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna sustatzeko ezarritako betebeharrak bete eta aplikatzen direla, gai horri buruzko araudian xedatzen den moduan.

14. artikuluan honako hau ezartzen da: <<Nafarroako Eskola Kontseiluak, Nafarroako hezkuntza-sistemari buruz urtero egiten duen txostenean, foru lege honek hezkuntza arlorako aurreikusten dituen neurrien garapenari buruzko informazioa jasoko du, edo txosten berariazkoa egingen du>>.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak, hezkuntza-sistemako printzipio eta balioak ere barne hartzen ditu, indarkeriaren prebentzioari begira.

1. Espainiako hezkuntza-sistemak bere xedeen artean izango du ikasleak heztea, oinarritzko eskubide eta askatasunak errespetatzeko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatzeko, bai eta tolerantzia eta askatasuna elkarbizitzaren printzipio demokratikoen arabera egikaritzeko ere.
2. Era berean, Espainiako hezkuntza-sistemak kalitate-printzipioen artean izango ditu gizonen eta emakumeen arteko berdintasun osoa eragozten duten oztopoak ezabatzea eta gatazkak prebenitzeko nahiz gatazka horiek modu baketsuan konpontzeko heziketa. Haur Hezkuntzak lagunduko du haurtzaroen gatazkak modu baketsuan konpontzeko ikasketa garatzen.
3. Lehen Hezkuntzak lagunduko du ikasleen gaitasuna garatzen, euren arteko gatazkak modu baketsuan konpon ditzaten eta sexuen arteko berdintasuna errespetatu dezaten.
4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak lagunduko du ikasleen gaitasuna garatzen, hurkoarekin harreman baketsuak izan ditzaten eta gizonen eta emakumeen aukera-berdintasuna ezagutu, baloratu eta errespetatu dezaten.
5. Batxilergoak eta Lanbide Heziketak lagunduko dute ikasleen gaitasuna garatzen, modu arduratsu eta autonomoan jardun ahal izateko, euren pertsona-, gizarte- eta moral-heldutasuna sendo dadin; sexu-desberdintasunak modu kritikoan aztertu eta baloratu ditzaten; eta gizonen eta emakumeen artean benetakoa eta eragingarria den berdintasuna susper dezaten.

6. Pertsona nagusientzako hezkuntzak dituen xedeen artean izango dira gatazkak modu baketsuan konpontzearen inguruko jarduerak garatzea eta pertsonen duintasunarenganako eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarenganako errespetua surpetzea.

7. Unibertsitateek esparru akademiko guztietan ezarri eta suspertuko dute genero-berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren inguruko heziketa, irakaskuntza eta ikerketa, zeharkakotasunez.

Azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuak, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazioak ezartzen dituenak, honako hau xedatzen du 3. artikulua 3. puntuan, jarduteko printzipioei buruz: *Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloan aitortutako eskubide guztiak eta haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubidea baliatzeko aukera bermatzeko, Osasun, Hezkuntza eta Eskubide Sozialetako departamentuek beharrezkoak diren osasun, hezkuntza eta gizarte arloetako politikak garatuko dituzte, askatasuna, intimitatea eta autonomia pertsonala zeharo errespetatuz betiere.*

10. artikulua, d. puntuan, Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean aritzeko konpromisoa ezartzen du, “hezkuntza afektibo eta sexuala Nafarroako eskola sarean sartzeko beharrezkoak diren neurriak garatzeko”.

12. artikulua, 3c puntuan, beste konpromiso bat ezartzen du: “Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean aritzea hezkuntza afektibo eta sexuala Nafarroako eskola sarean sartzeko beharrezkoak diren neurriak garatzeko”.

15. artikulua, i puntuan, honako konpromiso hau aipatzen da: “Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin eta Hezkuntza Departamentuarekin lan egitea sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko sustapen eta prestakuntza eginkizunak betetzen”.

LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko 8/2017 Foru Legeak, ekainaren 19koak, Hezkuntza Departamentuaren esku hartzeko betekizuna ezartzen du 26. artikuluan:

2. Hezkuntza Departamentuak, LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailearekin lankidetzan, Nafarroako hezkidetzari eta LGTBI+ bestelakotasunari buruzko plan integral bat prestatuko du, Nafarroako LGTBI+ errealitatearen gaineko azterlan batetik abiatuta, zeinak ikertuko baitu gai horien gainean irakasleek, familiekin eta ikasleekin duten pertzepzioa, eta kontuan hartuko baititu hezkuntza arloan LGTBI+ pertsonen berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko beharrezkoak diren neurriak. Plan horrek, besteak beste, jasoko du LGTBI+ kolektiboari ikastetxeetan ematen zaien tratamendua. Plan integral horretan aurreikusitako neurriak heziketa maila eta ziklo guztietan aplikatuko dira, bai irakaskuntza publikoan, bai pribatuan ere.

CURRICULUMAREN EDUKIA

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, hezkuntza-etapetan lortu nahi diren helburu espezifikoak deskribatzen ditu:

Pertsonen arteko desberdintasunak eta emakumeen zein gizonen arteko eskubide-berdintasuna eta aukera-berdintasuna ezagutzea, ulertzea eta errespetatzea da Lehen Hezkuntzaren helburuetako bat. Legeak ezartzen du Lehen Hezkuntzak, genero-berdintasunari dagokionez, indarkeriaren, mota orotako aurreiritzien eta estereotipo sexisten aurkako jarrera hartuko duela oinarri (17.d eta 17.m artikuluetan).

23.c artikulua ezartzen du Espainiako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburuetako bat dela sexuen arteko desberdintasuna eta horien arteko eskubide-berdintasuna eta aukera-berdintasuna balioestea eta errespetatzea. Halaber, espresuki aipatzen du gizonen zein emakumeen arteko diskriminazioa eragiten duten estereotipoak baztertzeko direla.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 4/2015 Foru Legeak, apirilaren 10ekoak, honako hau ezartzen du 12. artikuluan, hezkuntza-curriculumei eta materialei dagokionez: <<hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuak bermatuko du hezkuntza maila guztietako curriculum osatzen duten edukiak eta prozedurak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta giza eskubideen errespetuaren sustatzailerik izan daitezen>>. 16. artikuluan arabera, bestetik, <<Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du, bere eskumenen esparruan, indarkeria mota hau ulertzeko edukiak txerta daitezkeen emakumeen kontrako indarkeriarekin lotura zuzena duten lanbideetan aritzeko gaikuntza ematen duten unibertsitate tituluetarako ikasketa guztietan, prebentzioan, kasuen detekzio goiztiarrean, esku-hartzean eta/edo biktimak diren emakumeei laguntzen trebatzeko>>.

Emakumeen zein gizonen berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, honako hau ezartzen du 24. artikuluan: Hezkuntza-administrazioek, euren eskumenen esparruan, besteak beste, hurrengo jarduerak gauzatuko dituzte, <<jokabide nahiz eduki sexistak eta emakumeen eta gizonen artean bereizkeria sortzen duten estereotipoak ezabatzea eta ezestea, batez ere, testu-liburuetan eta hezkuntza-materialetan>>.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 4/2015 Foru Legeak, apirilaren 10ekoak, honako hau ezartzen du 12. artikuluan, hezkuntza-curriculumei eta materialei dagokionez: <<hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuak bermatuko du hezkuntza maila guztietako curriculum osatzen duten edukiak eta prozedurak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta giza eskubideen errespetuaren sustatzailerik izan daitezen>>. Halaber, <<proiektu eta material didaktiko eguneratuak egin eta zabalduko ditu, hezkuntza maila guztietarako, jokabiderako ildoak emanez, diskriminazioaren prebentzioa lantzeko, praktika eta jokaera sexistak gainditzeko, indarkeriarik gabeko maskulinitate ereduak eta harreman pertsonal eta afektibo libre, berdintasunezko eta bortxarik gabekoenak emateko>>.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak, honako hau ezartzen du 6. artikuluan: <<gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eragingarria bermatzeko xedearekin, hezkuntza-administrazioek zainduko dute hezkuntza-material guztietan estereotipo sexista edo bereizkeriazkoak ezabatzea eta gizonak nahiz emakumeek balio bera dutela suspertzea>>.

Azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuak, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazioei buruzkoak, honako hau ezartzen du 7. artikuluan: “Hezkuntza Departamentuak beharrezkoak diren neurriak garatuko ditu hezkuntza afektibo eta sexuala unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako curriculumean sartzeko, eta, beraz, ikastetxeko hezkuntza proiektuan ere, ikuspegi integral batekin”. Bestalde, 7. xedapen gehigarriak honako hau zehazten du: “Hezkuntza afektibo eta sexualeko neurriak, 7. artikuluan aipatzen direnak, foru dekretu honek indarra hartu eta urtebeteko epean ezarriko dira”.

LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko 8/2017 Foru Legeak, ekainaren 19koak, planekin eta hezkuntza-edukiekin lotutako alderdiak garatzen ditu 27. artikuluan: “Nafarroako Hezkuntza Administrazioak segurtatuko du hezkuntzako metodologia, curriculumak eta baliabideak baliagarriak direla sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateen bestelakotasuna gehiago ulertu eta errespetatzeko. 3. Nahitaezkoa izanen da ikastetxe bakoitzean hezkidetzaren plan bat egon dadila, tutoretza-planak, hezkuntza-orientazioko planak eta bizikidetasun-planak orientatuko dituenak, bai eta harrera-protokoloak ere. Bestalde, Nafarroako Gobernuak ikastetxeetako antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua egokituko du foru lege honetan jasotakoaren arabera. Ikastetxe bakoitzak bere autonomiaren indarrez onesten duen hezkuntza proiektuak errespetatu beharko du, nolahi ere, foru lege honetan LGTBI+ pertsonen berdintasun soziala dela eta ezarritakoa. Hezkuntza-planek ikastetxearen hezkuntza-proiektuan eta curriculum-proposamenean jaso beharko dute LGTBI+ pertsonen eskubideen aitortza eta errespetua, bai eta haien ikusgaitasuna eta sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- eta genero-identitateagatiko diskriminaziorik eza. Horretarako, tresnak, baliabideak eta estrategiak izanen dituzte, bestelakotasunean hezteko, eskola jazarpenari aurrea hartzeko eta errespetuan eta berdintasunean hezteko, hezkuntza formalean nola ez-formalean, curriculumari berdintasun eta bestelakotasunen aitortza positiboa lantzen duten edukiak erantsiz”.

MATERIAL DIDATIKOAK:

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, testu-liburuei eta curriculum-materialei buruzko bat barnebiltzen du xedapen gehigarrietan. Zehazki: <<erabilitako materialak Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko Legetik etorritako printzipio eta balioak islatu beharko ditu>> (laugarren xedapen gehigarria).

Azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuak, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazioak ezartzen dituenak, honako hau ezartzen du 7. artikulua 2. puntuan: “Hezkuntza Departamentuak ikasleei eta irakasleei adin bakoitzerako egokiak eta eskuratzeko modukoak diren irakaskuntzarako metodologiak eta materialak emanen dizkie; material horiek Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin, sexu- eta ugalketa-osasunaren arretarako zentroetako arduradunekin eta ikastetxeetako guraso elkarteekin elkarlanean prestatu eta ezarriko dira”.

KOORDINAZIO-PERTSONAK ETA -EGITURAK

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, ikastetxe publikoak gobernatu behar dituzten koordinazio-organoak arautzen ditu. Zentzu horretan eta [Eskola Kontseiluari](#) dagokionez, honako hau ezartzen du 126. artikuluan: <<Ikastetxearen Eskola Kontseilua eratu ondoren, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra sustatuko duten hezkuntza-neurriak bultzatzeko pertsona bat izendatuko du>>. Halaber, Eskola Kontseiluaren eskuetan uzten du [ikastetxeko elkarbizitza](#), [gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna](#), [besteak beste](#), [bultzatzeko neurriak](#) (127g artikulua) hartzeko ardura. Halaber, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra sustatuko duten hezkuntza-neurriak bultzatzeaz arduratuko den pertsona bat izendatzera, ikastetxeko eskola-kontseiluaren barrutik, behartzen du.

Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak honako hau ezartzen du 24. artikuluan: <<emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea, irakaskuntza-zentroetako kontrol- eta gobernu-organoetan>>.

1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak, honako hau ezartzen du 8. artikuluan: <<beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, ziurtatzeko eskola-kontseiluek bultzatzen dutela hezkuntza-neurriak hartzea gizonen eta emakumeen artean benetakoa eta eragingarria den berdintasuna, suspertzeko. Xede berarekin, Estatuaren Eskola Kontseiluan ziurtatuko da ordezkatuta izatea Emakumearen Institutua eta, nazio-lurralde guztian sustraituta izanik, emakumeen interesak defendatzen dituzten erakundeak>>.

Azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuak, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioak ezartzen dituenak, honako hau zehazten du 4c artikuluan: “Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko esku-hartze komunitarioko programa berariazkoak gauzatzea, gazteentzat eta behar bereziak dituztenen beste talde batzuentzat”.

- Hezkuntza Departamentuari sostengua ematea hezkuntza afektibo eta sexuarekin, 7. artikuluan xedatutakoarekin bat.

- Osasun eta hezkuntza arloetako profesionalei eta osasun komunitarioko eragileei prestakuntza ematea osasun sexual eta afektiboaren arloan eta ugalketa-osasunean.

4. artikulua 2. puntuak “Sexu orientazioa eta hezkuntza” jorratzen du, eta g eta h puntuak “Ikastetxeetarako laguntza jarduerak” eta “Desgaitasunak dituztenentzako hezkuntza eta laguntza jarduerak, haien sexualitatearen bizipen positiboa eta segurua izan dezaten” aipatzen dituzte.

LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko 8/2017 Foru Legeak, ekainaren 19koak, honako hau ezartzen du 29. artikuluan:

29. artikulua. Homofobia, lesbofobia, bifobia eta/edo transfobiagatiko diskriminaziozko portaera eta jarreraren aurrean jarduteko protokoloa.

1. Hezkuntza Departamentuak, LGBTI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailearekin lankidetzan, azterlan bat egingen du homofobia, lesbofobia, transfobia eta bifobia direla-eta gertatzen diren diskriminaziozko portaera eta jarrerei buruz. Azterlan horretatik abiatuta, ikastetxe guztietan jarduteko protokolo bat ezarriko da, ikastetxearen bizikidetasun planaren barruan, sexu-joera, sexu- edo genero-identitate edo genero-adierazpenengatik aurreiritziak eta diskriminazioa dakartzaten jarrera eta portaera homofobiko, lesbofobiko, bifobiko edo/eta transfobikoak direla eta.
2. Aipatu protokoloan jasoko da behar den koordinazioa egotea hezkuntza, osasun eta gizarte-ekintza arloen artean, antzemate eta jardute azkarrak lortzeko bestelakotasunaren aurkako diskriminaziozko egoeren aurrean.
3. Halaber, babes neurriak izanen ditu, aurre egitekoak eskola jazarpenari eta ikasleek, familiekin, irakasleek eta ikastetxean zerbitzua ematen duten gainerako pertsonen berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako daukaten eskubidearen aurkako edozein jarduketari. Babes horrek barne hartuko du antolamendu juridikoan dauden salaketa-mekanismoei buruzko informazioa. Ikastetxeek protokoloa bere errealitate berekiari egokituko diote, arreta eta laguntza egokia bermatzeko ikasleei, irakasleei edo administrazio eta zerbitzuetako langileei, ikastetxean sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminazioa jasaten badute.

Erreferentziako dokumentua:

Hezkuntza-protokoloa transexualitate-kasuetan, Nafarroako Gobernuak onetsia, 2016an.

LANGILEEN GAITZEA

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, irakasleen prestakuntzari buruzko kapituluan, 102. artikuluan, zehazki, haxe xedatzen du: <<aukera-berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoa sartu beharko da prestakuntza iraunkorreko programetan, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko Legeak ezarri bezala>>.

Emakumeen zein gizonen berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, honako hau ezartzen du 24. artikuluan (hezkuntza-politikan berdintasun-printzipioa integratzeari buruzkoa), hezkuntza-administrazioek, euren eskumenen esparruan, haxe garatu beharko dutela: <<berdintasun-printzipioa nola ikasi eta aplikatu integratzea irakasleentzako hasierako prestakuntzarako eta prestakuntza iraunkorrerako ikastaro eta programetan>>.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak, zera ezartzen du 7. artikuluan: <<hezkuntza-administrazioek beharrezko neurriak hartuko dituzte berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoa sar dadin irakasleentzako hasierako prestakuntzarako eta prestakuntza iraunkorrerako planetan, ondokoak erdiesteko beharrezko ezagutza eta teknikak bereganatuko dituztela bermatze aldera:

- a) ikasleak hezteko oinarritzeko eskubide eta askatasunak errespetatzeko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatzeko, bai eta tolerantzia eta askatasuna elkarbizitzaren printzipio demokratikoen arabera egikaritzeko ere.
- b) ikasleak hezteko gatazken prebentzioan eta gatazkak modu baketsuan konpontzean bizitza pertsonal, familiar eta sozialaren eremu guztietan.
- c) indarkeria goiz antzematea familiako eremuan, batez ere emakumeen zein seme-alaben aurkako indarkeria.
- d) sustatzea emakumeek zein gizonek eskubide eta betebeharrak berdina gauzatzearen aldeko jokabideak, bai eremu publikoan, bai pribatuan, baita haien arteko ardurakidetasuna ere etxeko eremuan>>

Azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuak, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazioak ezartzen dituen, 4c artikuluan, “Osasun eta hezkuntza arloetako profesionalei eta osasun komunitarioko eragileei osasun sexual eta afektiboaren arloan eta ugalketa-osasunean prestakuntza” arautzen du.

6. artikulua zera ezartzen du: “Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak sexu- eta ugalketa osasunaren arloko Prestakuntza Plan bat garatuko du Sexu- eta Ugalketa-Osasunaren Arretarako Zentroetako profesional egokiekin”. Plan horrek kontuan hartuko du, besteak beste, generoaren eta sexu-berdintasunaren eta aniztasunaren arloko prestakuntza, eta ahaleginduko da beti pertsonen sexualitatearen garapen harmoniatsua laguntzen, bakoitzaren egoera pertsonala eta bizitzako etapa edo unea aintzatetsiz; horrekin batera, antolatuko dituen prestakuntza jarduerak osasunaren arloko profesionalentzat ez ezik irakasleentzat eta osasun komunitarioko eragileentzat ere izanen dira.

Profesionalei prestakuntza ematen dietenek sexologia arloko prestakuntza egokia eta frogatua dutela bermatu beharko da”.

10. artikulua 2c puntuan, ezartzen da Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak “Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloan, prestakuntza planaren garapena” bultzatuko duela, “bai osasunaren arloko profesionalentzat bai irakasleentzat eta osasun komunitarioko eragileentzat, arrisku taldeetan osasunaren sustapenean aritzen direnentzat”.

LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko 8/2017 Foru Legeak, ekainaren 19koak,

prestakuntza- eta dibulgazio-ekintzen inguruko alderdiak garatzen ditu 28. artikuluan:

1. Irakasleei, irakasle ez diren langileei eta zerbitzueta langileei prestakuntza egokia emanen zaie, prestakuntza-ikastaroetan, LGTBI+ kolektiboaren errealitatea jasoz eta ikasgelan eta ikastetxean LGTBI+ ikasleen presentzia edo familietan LGTBI+ kideen presentzia lantzeko modua azalduz.
2. Ekintzak eginen dira ikastetxeetan LGTBI+ pertsonen errespetua eta diskriminaziorik eza sustatzeko, bereziki ikasleen gurasoen elkarrekin artean.

IKUSKAPENA

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, hauxe ezartzen du: <<ikuskapenak kontrolatu beharko du emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa, besteak beste, errespetatzen dela ikastetxean (151e artikulua)>>.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legeak, apirilaren 10ekoak, 13. artikuluan (norabideak jasotzen ditu hezkuntza-plan eta -proiektuetan), ondokoa zehazten du: <<Hezkuntza arloko eskumena duen departamentuko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak zainduko du foru lege honetan emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna sustatzeko ezarritako betebeharrak bete eta aplikatzen direla, gai horri buruzko araudian xedatzen den moduan>>.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak, hauxe ezartzen du 9. artikuluan: <<Hezkuntza-ikuskatzailtzaren zerbitzuek zainduko dute kapitulu honetan jasotako printzipio eta balioak aplikatzea hezkuntza-sisteman, emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna suspertzeko>>.

GENERO-INDARKERIA

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, hogeita batgarren xedapen gehigarrian, indarkeria-ekintzen ondoriozko ikastetxe-aldaketak arautzen ditu: <<genero-indarkeriako ekintzen edo eskola-jazarpenaren ondorioz ikastetxez aldatu behar duten ikasleen berehalako eskolatzea ziurtatuko dute hezkuntza-administrazioek. Halaber, ikastetxeek ikasle horiei arreta berezia eskaintzeko aukera erraztuko dute>>.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legeak, apirilaren 10ekoak, zera arautzen du 10. artikuluan: <<Foru Komunitatearen Administrazioak:

c) Mendekotasunean, kontrolean eta indarkerian oinarritzen diren harremanak sortzen dituzten estereotipoei aurka egiteko hezkuntza neurriak garatuko ditu.

d) Protokoloak eginen ditu hezkuntzaren esparruan emakumeen kontrako indarkeria, nerabeen eta gazteen artean gertatzen dena, identifikatzeko eta horri erantzuteko.

e) Heziketa afektibo-sexuala eta genero indarkeriaren prebentzioa irakasgaia garatuko du hezkuntza-maila guztietan, eta hezkuntza-plan bat taxutuko du, ikastetxe guztietan ezinbestean garatu beharko dena>>.

Eta, 15. artikuluan, eskolatzeari dagokionez emakume baten aurkako indarkeria-kasurik egonez gero.

1.Hezkuntza arloko eskumena duen departamentuak berehala eskolatuko ditu emakumeen kontrako indarkeria egoerak direla-eta ikastetxea aldatu behar duten haurrak, eta behar diren kautelazko neurriak hartu ahal izanen dira aldaketa hori benetan berehala egin dadin. Kasu horietan ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Eskolatze Batzorde Orokorrak edo eginkizun horiek antzeko izaeraz betetzen dituen organismoak aldeztu aurretik onarpena ematea.

2.Hezkuntza arloko eskumena duen departamentuak erraztuko du ikastetxeek arreta berezia ematea ikasle horiei, eta haien eskubideei lehentasuna emanen diete erasotzailearen eskubideen gainetik, horrelako egoera bat gertatuz gero ikastetxeko elkarbizitzan.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa

emateko neurriei buruzkoak, 10. artikuluan ezartzen du Foru Komunitateko Administrazioak protokoloak egingo dituela <<hezkuntzaren eremuan emakumeen kontrako indarkeria, nerabeen eta gazteen artean gertatzen dena, identifikatzeko eta horri erantzuteko>>. Halaber, 15. artikuluan, eskolatzea arautzen du emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan: <<hezkuntza arloko eskumena duen departamentuak berehala eskolatuko ditu emakumeen kontrako indarkeria egoerak direla-eta ikastetxea aldatu behar duten haurrak, eta behar diren kautelazko neurriak hartu ahal izanen dira aldaketa hori benetan berehala egin dadin.

Kasu horietan ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Eskolatze Batzorde Orokorrak edo eginkizun horiek antzeko izaeraz betetzen dituen organismoak aldeztu aurretik onarpena ematea>> eta <<hezkuntza arloko eskumena duen departamentuak erraztuko du ikastetxeek arreta berezia ematea ikasle horiei, eta haien eskubideei lehentasuna emanen diete erasotzailearen eskubideen gainetik, horrelako egoera bat gertatuz gero ikastetxeko elkarbizitzan>>.

Bukatzeko, abenduaren 16ko 204/2010 Foru Aginduak, Hezkuntzako kontseilariak emanak, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetzara arautzen duenak, 16. artikuluan, arautzen du zer egin genero-indarkeriaren aurreko egoeretan, hezkuntza eremuan:

1. Arau honen ondorioetarako, genero-indarkeriak emakume edo nesken aurkako indarkeriazko ekintza guztiak hartzen ditu, hau da, haiei kalte fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoak egiten edo egiten ahal dizkietenak, horrelako ekintzen mehatxuak eta bortxa edo askatasuna kentzea barne, familian, eskolan lantokian edo jendartean gertatu eta jendaurrean nahiz pribatuan izan eta, zehazki, gaur egungo zigor kodean delitutzat edo hutsegitetzat jota dauden guztiak.

2. Ikastetxearen jarduketak. Hezkuntza komunitateko kideren batek tratatu txarrak edo genero-indarkeria jasaten dituela jakin edo susmo sendorik izanez gero, "Hezkuntza eremuko genero-indarkeriaren aurrean jokatzeko gidaliburuari" jarraituko zaio, Nafarroako Gobernuak "Erakundeen arteko akordioan, emakumeen aurkako indarkeriarako arretoa eta aurreneurriak koordinatzeko" zehaztuta duen horri. Neska ikasleren batek genero-indarkeria jasaten duenean, foru agindu honen 15.2.c) artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

3. Hezkuntzako Ikuskapenaren jarduketak: Hezkuntzako Ikuskapenak bere araudi berariazkoaren ondoriozko jarduketak egingen ditu.

4. Bizikidetzarako Aholkularitzaren jarduketak: Bizikidetzarako aholkularitzak 15. artikuluen 4. puntuan deskribatutako jarduketak egingen ditu, hau da, <<Planteatzen diren aholku eta eskaera guztiak jasoko ditu aholkularitzak. Horiek hainbat modutan iristen ahal dira, eta familiekin, ikastetxeekin, ikasleekin edo inplikaturako beste pertsona edo entitate batzuekin aurkeztekin ahal dituzte. Aholkuek gain, bizikidetzarako aholkularitzaren esku hartzea ere behar denean, idatzita eskatu beharko da. Eskaera idatzia jasotakoan, aholkularitzak eskaera horren berri emanen die ikastetxeko zuzendaritzari eta hezkuntzako ikuskapenari, eta beharrezko esku hartzeak proposatuko ditu>>.

18. artikuluan, zehazten da zer egin adingabeen indarkeria egoerak eta tratatu txarrak jasaten dituztenean edo eskolatu gabe daudenean.

1. atalak honako hau azaltzen du: <<Adingabeak zaintzeko ardura duten helduen portaeraren ondorioz, 18 urtez azpiko pertsona batekin oinarritzeko beharrak bete gabe dituztenean, kalte fisiko edo emozional larria duenean edo horrelako kaltea jasateko arrisku larria, babestutako egoeretan daudela esaten da. Tratatu txar fisikoa, zabarkeria, tratatu txar emozionala, abandonu emozionala, sexu-abusua eta horien aurreko beste edozein egoera tratatu txartzat jotzen dira>>.

Eta jarraitzen du: <<hezkuntza komunitateko edozein kidek haurren bat babesik gabe dagoela sumatuz gero edo bistakoa izanez gero, behartuta dago hura jakinaraztera ikastetxeko zuzendaritzari, eta horrek gizarte zerbitzuei, larrialdietan bidezko diren jarduketak ukatu gabe. Halaber: <<Adingaberen bat eskolatu gabe dagoela edo nahitaezko urteetan justifikatu gabe ikastetxera joan ohi ez dela atzemanez gero, edozeinek eta, hortaz, edozein irakaslekin jakinarazi beharko dio ikastetxeko zuzendaritzari, eta horrek beharrezko neurriak hartuko ditu haurra eskolatzeko eta, behar izanez gero, agintari publiko eskudunei haren berri emanen die>>.

GURASO-ELKARTEENTZAKO ETA ESKOLA-KOMUNITATEARENTZAKO PRESTAKUNTZA

Azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuak, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazioak

ezartzen dituenak, honako hau ezartzen du: “Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko esku-hartze komunitarioko programa berariazkoak gauzatzea, gazteentzat eta behar bereziak dituztenen beste talde batzuentzat:

-Eskola komunitateari, irakasleei eta guraso elkartei zuzendutako sexu-hezkuntzako programak sustatu, gauzatu eta horietan parte hartzea”. “

4. artikulua 2f puntuan, Sexu orientazioa eta hezkuntzari buruzkoan, “guraso elkarte eta helduentzako ikastaroak eta tailerrak, bai eta jarduera soziokulturaleko zentroetarako ere” garatuko direla zehazten du.

Bukatzeko, bosgarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du: “Txantreako Andraize eta Iturrama-Donibaneko sexu- eta ugalketa-osasunaren arretarako zentroak erreferentziako zentroak izanen dira programa gehigarri hauek garatzen laguntzeko”, eta b puntuak zehazten du: “Sexu hezkuntzako ikastaroak eta tailerrak eskola komunitatearentzat: irakasleak eta guraso elkarteak, bai eta helduen kolektiboentzat eta jarduera soziokulturaleko zentroentzat eta gazte elkarteentzat ere”.

2. eranskina. Aurrekar iak

2008tik gaur arte, Coeducando programaren inguruan bildu dira Hezkuntza Departamentutik zein ikastetxeetatik hezkidetzaren aldeko eskola-eredu batean aurrera egiteko koordinatutako esku-hartzeak. **Hezkuntza-praktika hezkidetzaren ikuspuntutik azertu, birpentsatu eta birprogramatu** nahi zuten ikastetxe nafarren irakasleei prestakuntza eta laguntza emateko asmoz sortu zen programa. Berdintasunerako Atal eta Bulegoak koordinatu zuen 2008tik 2011ra, baina 2012ko murrizketek finantzazioa eta egitura kendu zizkieten. Geroztik, hainbat prestakuntza-ekintza baino ez dira egin programaren barruan, ikastetxeek halakorik eskatuz gero.

Programa diagnosi-hausnarketa batetik egituratu zen, hobetu beharreko alderdiak definituta. **1. mintegia** izan zen hori: **Berdintasuna, baterako hezkuntza eta oinarritzko gaitasunak: hasierako diagnostikoa eta irakaskuntza-praktika. 2. mintegiak (Batera Heziz)** laguntza, materialak eta orientabideak eman zizkien ikastetxeei, hezkidetzaren helburuak ikastetxeko hezkuntza-proiektuetan txertatze aldera, ikastetxerako hobekuntza-konpromisoak sartuta urteko programazio orokorrean.

Programaren esparruaren barruan, irakasleentzako material eta laguntza-baliabideak, ikasgeletan aplikatzeko **prestakuntza-materialak** (eduki teoriko zein praktikoak zituzten) eta **zortzi irakurketa-maletak** garatu ziren. 700 liburuk baino gehiagok osatzen zuten maleten funtsa, baita ikasle zein irakasleentzako hezkidetzari buruzko materialek ere, eta oraindik ere ibiltzen dira ikastetxe batetik bestera.

Coeducando blogak eta **Coeducando sariak** sortu zireneko interes eta espiritua berreskuratuko dituzte: hezkidetzari buruzko jardunbide egokiak hedatu eta sustatzea Nafarroako ikastetxeetan.



"COEDUCANDO". PROPUESTA DE TRABAJO

Cada propuesta de trabajo trimestral del programa "Coeducando" tiene los siguientes componentes:

- **Orientaciones para el profesorado**, generales (para todas las etapas) y específicas de cada etapa (aunque no exclusivas de la misma, ya que son adaptables y utilizables en el resto).
- **Actividades y fichas de observación y actividad directa** con el alumnado. Son modelos o ejemplos tipo pensados y propuestos para una etapa concreta, cuyos ideas, conceptos y contenidos pueden adaptarse y utilizarse en cualquier otra etapa.

de dos tipos: sobre el aprendizaje que se depende del ciclo ecogen en las páginas que, en color rojo,

respecto a algún contenido tadas y aplicadas especialación Infantil, Primaria y

pautas profesorado

Tanto las pautas específicas para el profesorado como las fichas de observación y actividad de cada etapa (Infantil, Primaria y Secundaria) se van de utilización mediante en la etapa en la que se pretende. Al contrario, realizando una mínima adaptación temática o terminológica, todas ellas son válidas en las demás etapas.

Por ejemplo, el tema "Pautas para acciones con el alumnado" ha sido diseñado pensando especialmente en el alumnado de Educación Secundaria y en las pautas más adecuadas para trabajar con él sesiones específicas de observación para la igualdad y por lo que se recoge en las páginas dedicadas a dichas etapas. Para crear una adaptación mínima es igual de válido para el resto de las etapas. Otro tanto ocurre, por ejemplo, con las pautas específicas dadas en la propuesta de Educación Infantil ("Juego familiar" e "Intervención media") o en Educación Primaria ("Uso de los recursos multimedia").

adaptabilidad

Exactamente lo mismo ocurre con las fichas de observación y actividad. Las de Educación Infantil (tanto observación de interacciones del profesorado, como hacer que y cómo puede hacer que...) y Educación Primaria (observación de espacios, etc.) son muy fácilmente adaptables y utilizables en Secundaria. Y, a la inversa, las de Secundaria muy fácilmente modificables y adaptables para utilizarse en las etapas anteriores.

Página 1

coeducando

ACTIVIDADES Y FICHAS PROPUESTAS POR ETAPAS



3. eranskina. Ikastetxe pilotuak

Hauexek dira SKOLAE programaren fase pilotuan sartuko diren ikastetxeak (2017-2018 ikasturtea):

HAUR HEZKUNTZA (0-3 URTE)	
Ikastetxearen izena	Herria
Sta. Teresa 0-3 Txantrea	Iruña
Ostadar 0-3	Orkoien
Amalur 0-3	Atarrabia

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA (3-11 URTE)	
Ikastetxearen izena	Herria
Hegoalde	Iruña
Ermitaberri	Burlata
Mendialdea II	Berriozar
Gloria Larrainzar	Zubiri
San Benito	Miranda-Arga

DBH - BATXILERGOA 12-18 URTE	
Ikastetxearen izena	Herria
Iturrama BHI	Iruña
Zizur BHI	Zizur
Marqués de Villena	Martzilla
Benjamín de Tudela BHI	Tutera

LANBIDE HEZIKETA (14-18)	
Ikastetxearen izena	Herria
Burlata LH.	Burlata
Sakana LH IIP	Altsasu
Hezitzaile Eskola	Iruña
Uharte BHI	Uharte

4. eranskina. Prestakuntza-plana

Aurreikusi bezala aurrera egingo badu SKOLAE programak hezkidetzari dagokionez, beharrezkoak dira irakasleentzako zein ikastetxearen egunerokoan parte hartzen duten guztientzako mailaz mailako prestakuntza eta laguntza. Familientzako prestakuntza ere aurreikusita dago, eta ikastetxeetatik hurbileneko toki-eragileekin batera jorratuko da.

Irakasle bakoitzak zein ikasleekin harremanak (bai ikastetxeko espazio formaletan, bai informaletan) dituen pertsona bakoitzak hezkidetzaren arloan dituzten gaitasunek bat eginda lortzen dira hezkidetzaren aldeko ikastetxeak.

SKOLAE programaren erronka ezagutzak, erreferentziak, tresnak, informazioa eta baliabideak ematea da irakasleen lanerako zein ikastetxeko gainerako eremuetarako (zerbitzuak, zainketa...).

Irakasleek eredia jorratu bitartean egindako eskariei erantzuten die prestakuntza-ibilbideak. Oinarrizko ezagutza teoriko komunitatik abiatu, eta ikasturte osoan zehar aplikatu beharreko proposamen didaktiko zehatzekin osatzen da, ikasketen eduki bakoitzerako.

.

Bai hezkuntza-administrazioak, bai esperientzia pilotuan parte hartuko duten ikastetxeek ibilbidearen termino eta baldintzak adostu dituzte; ikasturte osoan zehar gauzatuko da, eta zati bat presentziala izango da, eta bestea, birtuala. Programa, bestetik, sendotu, eta konplexuagoa izango da aurreikusitako hiru ikasturteetako bakoitzean.

Hona hemen prestakuntza-planaren **oinarrizko helburuak**:

- Gizarteari darion sexismoaren kausa nagusiak aztertzea
- Irakasleek honi buruz hausnartzea: hezkuntza-baliabideak izan dezakeen ahalmena ikasleek berdintasun-eskubidea gauzatu dezaten bai eremu pribatuan, bai publikoan.
- Ikasleei garapen pertsonalerako eta pertsonen arteko harremanetarako eredu igualitarioak transmititzea sustatuko duten gaitasun, trebetasun eta baliabideak ematea irakasleei; beren bizitza-proiektuak mugatzen dituzten estereotipoekiko kritika ere sustatu beharko lukete haiek.
- Ikaskuntza-trukea eta hezkidetza-jokabide egokiak erraztuko dituen sare-lana garatzea.
- Feminitateari zein maskulinitateari buruzko hausnarketa kritikoa ahalbidetuko duten aukera metodologiko desberdinak ebaluatzea berdintasunezko identitate pertsonal berriak sortzeko oinarri gisa.
- Gatazkak modu baketsuan konpontzea bizitza pertsonal, familiar eta sozialaren eremu guztietan sartzearen alde egitea, eta horretarako jokabideak ematea.
- Ibilbidearen ardatz-egituratik etorritako oinarrizko kontzeptuekin trebatzea, baita programazioan txertatzen jakitea ere.
- SKOLAE programaren hezkidetza-sekuentziaren edukiei, ebaluazioari eta, bai fase pilotuan, bai orokortze-fasean, hobekuntzen identifikazioari buruzko hausnarketa kritikoa aintzat eman eta bultzatzea.

SKOLAE prestakuntza-ibilbidea

➤1. urratsa: SKOLAE jardunaldiak ikasturtearen hasieran

Hiru ikasturteen hasieran, SKOLAE programa, urteko helburuak, ibilbidearen edukiak eta programa garatzen den hezkidetza-esparrua ezagutu ahalko dituzte parte hartzen ari diren ikastetxeetako irakasle eta gurasoek, hezkidetzarekiko konpromisoa (bai ikastetxeetan, bai familietan) piztu eta mobilizatuko duten hitzaldi eta tailerren bidez.

➤2. urratsa: Hezkidetzari buruzko oinarrizko prestakuntza

Irakasle guztiek parte hartu ahalko dute prestakuntza-ikastaro horretan. Boluntarioa izango da, norberaren ezagutza-mailaren arabera, eta hezkidetzari buruzko oinarrizko termino eta kontzeptuak ezagutaraztea du helburu, ezagutza eta irakaskuntza-trebetasun berriak eraikiko baitira haietatik.

➤3. urratsa: Prestakuntza ikastetxean

Eskola-ibilbidea ikastetxean egiten den ikastaro batekin hasten da; klaustro osoa hezkidetza-ekintzari zein hezkidetzarekiko beharrezko konpromisoari (aldaketa-prozesu komun berme baita konpromisoa) buruz sentikortu, informatu eta trebatzea da helburua.

➤4. urratsa: Talde bultzatzailearentzako prestakuntza

Ikastetxe guztietako talde bultzatzaileek ondoko helburu hauek dituen ikastaro hori egingo dute: ikastetxe bakoitzerako hobekuntzak (antolaketa, kudeaketa, komunikazioan...) identifikatzea, hezkidetzaren bultzatzeko ahalmena sendotzea eta hezkidetzaren koordinatzea.

➤5. urratsa: Hezkidetzarako ibilbideak

Hezkidetzaren ereduaren lau ardatzak zein bakoitzak ikasketekin duen lotura aztertuko dituzte irakasleek ikastaro horretan, balizko lan-ildoak zein beren gaitasun-eremuarekin edo lan-arloarekin izan daitezkeen uztarketak identifikatzeko aldera.

➤6. urratsa: Hiru hilean behingo proiektuak

Ikastaroak lau ardatzen hezkidetzaren edukia modu praktikoa hedatzen laguntzen die irakasleei; hiru gairen arabera (gai bat hiruhileko bakoitzeko) egingo da, eta eremu pertsonalarekin, harremanen eremuarekin eta eremu sozialarekin duten loturaren arabera aukeratuko dira. Jarduera- edo proiektu-fitxak proposatzen dira, ibilbidearen ardatz bakoitzaren edukiei buruzkoak; fitxa horietatik, hiru hileko programazioan sartutako proposamenak erabaki, aukeratu eta integratu dituzte irakasleek, nork bere espezialitatearen arabera. Ikasturte osoan zehar tutorizatuko da programa.

➤7. urratsa: SKOLAE jardunaldiak ikasturtearen amaieran

Ikastetxeen, familien eta ingurunearen arteko ikaskuntza, proiektu eta lorpenak trukatu, ikusarazi eta ezagutaraziko dira espazio horretan, urtero.